

Herririk Herri | 6

Belaunaldien arteko ibilaldiak prestatu dituzte Berrizen, domekan hasita



Kultura | 11

Txelu Angoitia: "Bonbardaketaren osteko hutsunea hartu dut ardatz"

Aisialdia | 18

Jasangarritasunaren bandera jaso du Elorrioko Institutuak ortuko lanari esker

DURANGO | 4

Martxoaren 31ko bonbardaketa gogoratuko dute

Zapatuan, Zilar Astearen barruan, Kurutzia-geatik abiatuko den ibilaldi kulturala Santa Anako oroimen ekitaldiagaz amaituko da



KIROLAK | 17

Izar gutxiago, baina partaide gehiago lurretan, Hiri Frogan



Durango | 4

Lokalen erabiltzaileek ordenantzan parte hartuko dute

Abadiño | 8

Abadiño Ur Partzuergoan sartuko da uztailetik aurrera

Garai | 5

Udalak interneteko BiscayTIC zerbitzuan parte hartuko du

Elorrio | 5

Elkartasun bidaiari joango dira hainbat gazte Tinduferra

DURANGALDEA | 2-3

Jarraipen "historikoa" izan du grebak Durangaldean

Sindikatuak arrakastatsuz jo dute greba orokorrak eskualdean izan duen babesa

Industria arloan enpresek ekoizpena eten egin zuten; zerbitzu minimoak bete ziren



Kepa Aginako

"Langileok debekatuta daukagu gaixotzea"

Fode Niakate absentismoagatik Durangaldean kaleratutako lehenengo behargina da. Jon Ugarte bere lankidea eta LABeko delegatua da Fumbarin



**INMOBILIARIA
SAN FAUSTO, S.A.**



46 etxebizitza libre:

2 logela - 76,75 m²
3 logela - 92,10/97,40 m²
4 logela - 102,66 m²

PROMOZIO BERRIA MATIENAN



20 etxebizitza tasatu:

2 logela - 58,45 m²
3 logela - 72,80 m²

Garajeak eta trastelekuak

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00 - www.inmorehala.com

Salmenta bulegoa obran bertan

GREBA OROKORRA >

DURANGO

Sindikatuaren arabera grebak Durangalde osoa geldiarazi du

Goizeko lehen ordutik jarraipena arlo guztietan erabatekoa izan dela esan dute sindikatu guztiak

Sindikatuak arrakastatsutzat jo dute martxoaren 29ko grebaren jarraipena Durangaldean. Patronalak eta Eusko Jaur-laritzak adierazi dutenez, ostera, %60k egin du greba Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Hala ere, ez dute Durangaldeko daturik eman.

Zerbitzuen sektorean, denda eta taberna ia guztiak zarratu zituzten atzo. Eroskiren kasuan, Elorrioko Fundazioa zein biltegia itxi egin zituzten. Merkatal zentro handi nahiz denda txikiak ere itxita egon ziren goizean goizetik. Industria arloan, ekoizpena eten egin zuten. Inyektametal, Estampaciones Bizkaia, Layde, Smurfit Kappa Nervion, Fuchosa eta beste hainbat enpresa handitan, ez zuten aterik zabaldtu.

Inyektametal, Estampaciones, Smurfit eta Fuchosa enpresek eten egin zuten ekoizpena

Administrazio publikoan, garraioan, osasun zerbitzuetan eta hezkuntzan, gutxieneko zerbitzuak bete zituzten. Baina, Durangaldeko udal eta ikastetxe guztiak egin zuten bat grebagaz.

Sindikatuaren iritzia

"Grebak jarraipen historikoa izan du Durangaldean", azaldu du Uribarri Irigoras ELAko ordezkariak. "Erreforma bortitza izan dela eta langileak egoeragaz kontzientzia-tuak daudela dio ELAK: "Enpresaz enpresa asanbladak antolatu ditugu erreformak zein ondorio izango dituen azaltzeko".

LABeko ordezkari Eulate Zilonizurrekoetxeak grebaren jarraipena "osoa" izan zela adierazi du. Goizean goizetik dena itxita egon zela azaldu du: "Euskal Herriko langileak argi eta ozen esan du ez gaudela haien menpe egoteko prest eta bertan erabaki nahi dugula bai gure etorkizun politikoa zein ekonomikoa".

CCOOeko Roberto Martinek adierazi duenez, "Durangaldeko langileek grebagarengana atxikimenduagaz adierazi dute lan erreforma inposatzearen kontra daudela". Neurri hauek ez dute egoera ekonomikoa konpontzeko balio Martinen berbatan.

Mauricio Garcia UGTko ordezkariaren iritziz, Ermutik Zornotzara "dena gelditu" zen grebagaz. "Langileek kalera irten gura izan dute urteotan eskuratutako eskubideak kendu dizkietelako".

CNTk ere grebaren jarraipena eskualdean zabala izan dela azaldu du. Goizean sindikatuko kideek antolatutako pikete informatiboen arabera, komertzio gehienak itxita zeuden.

Tentsio unek

LABek eta CCOOek adierazi dutenez, goizean antolatutako pikete informatiboetako hainbat kide identifikatu eta kolpatu egin zituen atzo Ertzaintzak Cafes Baque enpresan. Pikete informatiboek "errespetu osoz" jardun zutela eta, Ertzaintzaren jarrera salatu dute bi sindikatuak. CNT-k dioenez, tentsio unek sortu ziren goizean denda baten aurrean, Ertzaintzak pikete batean ibili zen gazte bat lurrera bota zuenean. ■ J.G.



Durangoko manifestazioa Santa Anatik atera berri. Kepa Aginako



Elorrioko 450 manifestari batu ziren, lekukoaren arabera.

Lan erreformaren aurka batu dira Durangon eta Elorrioko

ELA eta LAB sindikatuak hainbat gizarte eragileguz bat egin eta manifestazio jendetsuak antolatu zituzten atzo arratsaldean Durangon eta baita Elorrioko ere, Raxoiren gobernuak martxan jarritako lan erreformaren kontra protesta egiteko.

Goizean, Bilboko manifestazioa joateko Durangotik ipinitako hamabi autobusak bete egin ziren, eta batek baino gehiagok autoz joan behar izan zuten. Antolatzaileen esanetan, 25.000 lagun batu ziren Bilboko protesta ekitaldian. Hiriburuetako

mobilizazioak arrakastatsuak izan direla diote sindikatuak eta gobernuari atzera egiteko eskatu diote. Raxoiren gobernuak aurreratu duenez, ez dute lan erreformagaz atzera egingo.

Fumbarri

Fumbarri enpresan elkarretartzea antolatu zuen LABek atzo goizeko 11:00etan enpresa honetan absentismoagatik egindako kaleratzea salatzen. ■ J.G.



EUSKAL UDALEKUAK
Uda bat, hamaika irri,
euskara giltzarri.

Izen-ematea

www.euskaludalekuak.org

207 Postakutxatila
20600 Eibar

626 029 479

posta@euskaludalekuak.org

Abaigar

Bernedo

Goñi





BERBAZ >

“Lan erreformagaz beldurra sartu gura digute; debekatuta daukagu gaixotzea”

Fode Niakatek sei urte zeramatzan Fumbarrin. Absentismoagatik Durangaldean kaleratutako lehenengo behargina da



Kepa Aginako

Jon Ugarte •

- Durangarra
- 46 urte

Fode Niakate •

- Malitarra
- 40 urte

Lan erreformak dakarrenaren erakusle da Fode Niakate Durangaldean. Absentismoagatik eskualdean kaleratu duten lehenengo behargina da. Malitarrak Fumbarri galdategian sei urte egin ditu lanean. Rebarban ziharduen, galdategi bateko lanik gogorrean. LABek bere kasua eza-gutzera eman du. Jon Ugarte da LAB sindikatuko delegatua Fumbarrin. 23 urte daramatza galdategian beharrean.

Nola gertatu da kaleratzea?

Fode Niakate: Aurrez abisatu barik, martxoaren 9an kaleratze gutuna eman zidaten. Irailean, urrian, azaroan eta otsailean denbora laburreko baja batzuk hartu nituen, medikuak justifikatuta, eta horixe dela arrazoia argudiatzen du enpresak.

Bide sindikaletik zein pausu eman duzue?

Jon Ugarte: LABen enpresagaz negoziatu gura izan dugu, baina ez dute horretaz berba egin gura izan. Orain kaleratze bidegabea izan dela salatuko dugu. Gaine-

ra, lan erreforma otsailean onartu zuten, eta baja hauek aurretik hartutakoak dira.

Zer nolako bajak izan ziren?

F. N.: Lunbagoagatik izan ziren bajak. Rebarban lan egiten dut, galdategi bateko zereginen artean gogorrena izaten da. Oso fisikoa. Medikuak baja eman zidan, Mutuek ez baitituzte gaixotasun hauek baja profesional moduan kontsideratzen. Orain, kalean nago.

Mutuen jarrera zelan baloratzen duzue LABen?

J. U.: Mutuak enpresen zerbitzura ari dira lanean. Badira gaixotasun asko baja profesional moduan kontsideratzen ez dituztenak. Norberak frogatu behar du gaixotasun profesionala dela. Hortxe dago absentismoaren arloan egiten duten tranpa. Mutuek eta medikuek

ere badakite baja asko profesionalak izan beharko liratekela. Langileak enpresara gaixorik joatera behartzen dituzte.

F. N.: Rotaflexaren zauri batekin joan nintzen behin Mutuara. Bost puntu eman zizkidaten eta jarraian lanera joan nintzen.

Lan erreformak nola arautu du absentismoa?

J. U.: Lehen ere absentismoa kaleratzeko arrazoia izan zitekeen, baina enpresako absentismo tasagaz lotuta zegoen. Orain, langilearen absentismo tasa bi hilabetetan %20koa bada, hau da, bederatzi egunekoa, enpresak behargina kaleratu ahal du. Lau hilabetean %25 bada, nahiz eta jarraian ez izan, langilea lan barik geratu ahal da. Galdategi bateko lana hain gogorra denez, absentismo tasa nahiko altua da. Fumbarrin, %13koa da.

“Enpresak ez du negoziatu gura; kaleratze bidebakoa salatuko dugu”

Zein irakurketa egiten duzue?

J. U.: Lan erreformak gaixorik ezin zaitezkeela jarri esan gura du. Lan fisikoa egiten den enpresa baten kasua da hau, gainera. Langileoi beldurra sartu gura digute. Kaleratzeak martxan jartzeko erraminta guztiak ditu enpresak. Debekatuta daukagu gaixotzea.

Fumbarrin orain hilabete batzuk greban egon zineten, eta hainbat mobilizazio ere antolatzen dituzte.

J. U.: Hilabeteko greba egin genuen joan zen urriaren 18tik azaroaren 18ra bitartean. Lan erregulazioa aplikatzeko kaleratze traumatikorik ez zela egongo adostu genuen enpresagaz, eta gero langile bi kaleratu zituzten. Kaleratze gehiago egon zitezkeelakoan, kalera irteten genuen gure eskubideak aldarrikatzera.

Lanean zelako giroa bizi duzue?

J. U.: Fumbarriren kasua berezia da. 84 langile inguruk egiten dugu lan, eta horietatik 20 bazkideak dira. Grebatik hona gure arteko hartu-emanek okerrera egin dute. Lanean zure alboan dagoena, lankidea izateaz gainera bazkidea da.

Enpresa zelan doa ekonomikoki?

J. U.: Fumbarri 2010ean ez zen ondo ibili, baina gainerako urteetan irabaziak egon dira. Zapatuetan ere joan izan gara lana aurrera ateratzera.

Euskal Herrian bada honelako beste kasurik?

J. U.: Konekta enpresan 11 andra kaleratu dituzte azken bi hilabeteetan, lanaldiaren %20 baino gehiago bajaran ematearren. Komunikabideetan ere agertu da. ■ J. Guenetxea

“Hilabeteko greba egin genuen urrian lankide biren kaleratzea zela-eta”

“Badira gaixotasun asko baja profesional moduan kontsideratzen ez dituztenak. Norberak frogatu behar izaten du gaixotasun profesionala dela”

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGO

Martxoak 31, oroimen eguna 75 urte eta gero

Bonbardaketan leku esanguratsuak izan ziren tokietatik ibilbide kulturala egingo dute bihar

Bihar izango dira 75 urte Durango bonbardatu zutela. Urteurren borobila dela eta, oroimen ekitaldi ugari prestatu dituzte udalak eta herriko elkarteek. Zilar Astea ere antolatuta dute hainbat elkarte, sortzailek eta eragilek auzolanen.

Bihar eguerdian, udalak antolatuta, kanposantuan omenaldia egingo zaie Gerra Zibileko biktimei. Komentukaletik autobusa irtengo da 11:30ean. Liburutegian, ipuin kontaketa saioak egongo dira, 12:00etan, hiru eta bost urte arteko umeentzat, eta 12:30ean sei urtetik gorakoentzat.

Sapuetxen, 17:00etan Jon Irabazabalek berbaldua eskainiko du eta kontzertuak prestatu dituzte gauerako Inkubo eta Kriminal Forces taldeekin.

Ibilaldia Andra Marirantz

Andra Mariko elizpean oroimen ekitaldi berezia egingo dute

Hainbat elkarte eta eragileren parte-hartzeagaz gogoratuko dute, bihar, 75. urteurrena

20:00etan, olerki, abesti eta lore eskaintzagaz. Aurretik, Zilar Astearen baitan, ibilaldi kulturala egingo dute bonbardaketan esanguratsuak izan ziren lekuetatik.

Kurutziagan 18:15ean ipini dute hitzordua. Santa Susanara joan eta Txelu Angoitiaren *In-memoriam* instalazio artistikoa ikusiko dute. Gero, San Agustine-ara abiatu, eta Karrikak *Lurra Astinduz* antzezlanaren zati bat eskainiko du. Bertatik Nevers-era joango dira, andren kartzela izandakora. Kriskitinek ikuskizun batez omenaldia egingo die bertan egon zirenei. Gero, Ezkurdin Bideografik-ek bonbardaketako testigantzekin egindako lana proiektatuko dute. Ondoren Andra Mariko batuko dira oroimen ekitaldirako. ■ A.Ugalde.



lazko lore eskaintza Andra Mariko elizpean. Gerediaga Elkarte. Txelu Angoitia.

"Su eraikitzaile" bihurtu gura dute gaur iluntzeko ekitaldia

Bizkaiko Foru Aldundiak eratu-ta, *Sua eskurik esku, lekurik leku* izeneko ekitaldia hartuko du gaur Andra Mari elizpean, 20:00etan. Ikuskizun narratibo honetan, Martxoak 31 musika taldearen *Aspaldiko negu batean* abestia izango da ardatz: "Estrofa bakoi-

tzak bonbardaketan zehar jazo-takoaren une zehatz bat aurkez-teko balioko digu", azaldu dute. Musika, irudia, dantza eta Durangaldeko hainbat udalako ordez-karien esanak batuko dituzte. Etxe musikariaren eta De Norte A Sur dantza taldearen partaide-

tza aipatu dute, esaterako. Durangogaz senidetuta dagoen Alemaniako Dresden herriko haur talde batek ere bideoa prestatu-ko du gaurko.

Zerutik sua dator! dokumentalaren ekoizpenagaz hasitako bidean jarraitu gura dute, Aldundiko Kultura diputatu Josune Ariztondok dioenez. "Duela 75 urteko su hori, su eraikitzaile bihurtu gura dugu", adierazi du Ariztondok. ■ M.O.

%16 bajatu da ur kontsumoa azken bi urteotan

Ur kontsumoa, oro har, %16 murriztu da Durangon azken urte biotan, eta etxeko kontsumoa %12. Udalaradunek azaldu dutenez, ur-eskaria jaitsita, urtean 145.000 euro aurreztu dira. Ur-eskaria eta kontrol bako kontsumoa gutxitzeko hainbat neurri hartu ditu udalak azken lau urteetan.

Neurrietako bat udalpean ur-kontagailuak eta ur-emariak jaisteko erreduktoreak ipintzea izan da. Horrela, eraikin publikoetan ura %48 gutxiago kontsumitza lortu da. Herri mailan, ur galerak detektatzeko plana abiatu dute; ur-sarea sektoreka banatuta eta hornidura sarea monitorizatuta, %37 gutxitu da kontrol bako ur kontsumoa. ■ A.B./A.U.

Gazteek elkar ezagutzeko Zapaburu Eguna

Domekarako *Eidxu salto kalera!* lemapean Zapaburu Eguna antolatu du Zapaburu konpartsak: "Gazteok elkar ezagutzeko eta gure buruari frogatzeko zerbait desberdina egin dezakegula". Durangoko gazte guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Hamaiketakoagaz eta tertuliaz hasiko dute egitaraua 11:00etan, Andra Mariko elizpean. Gero 'altxorren bila' ibiliko dira eta, 15:00etan, bazkariarako batuko dira elizpean. Herriko, Kalekantoien eta Arkarazon eros daitezke tiketak. Jolasak, poteoa eta mural margoketa egingo dituzte arratsaldean; iluntzean gaztetxean ekitaldia, luntxa eta kontzertua. ■ A.U.

Lokalen erabiltzaileek ordenantzan parte hartu ahaliko dute

360 gazte baino gehiagok alegazioa sinatu dute



Berrogei bat gazte gerturatu dira aste honetako udalbatzara.

Ordenantzan eskatutako neurriak gehiegizkoak direla irizita, lokalen 360 erabiltzaile baino gehiagok alegazioa aurkeztu dute udalean. Gazte lokalen asanbladak mozioa ere helarazi du udalbatzara, Bildu eta Aralar alderdien bidez.

Horri erantzuten, EAJk, PPK eta PSE-EEK ordenantza berraztertzea, eta erabiltzaileen eta auzokideen parte-hartzea bermatzea proposatu dute mozio

alternatibo batekin. Bigarren testu horrek batu ditu boto gehien udalbatzan. Beraz, alegazioen azterketarako epea luzatuko dute, parte-hartzerako neurriak hartu eta inplikatura dauden herritarren proposamenak bideratu ahal izateko.

Ordenantza urtarrilaren 31n onartu zuen udalbatzak behin-behinean, Aralar eta Bilduren botoekin ez ezik, beste alderdien aldeko botoekin. ■ A.U.

ZALDIBAR

KZguneko postua udaleko langileen zerrendara

Bildu, EAJ eta PP alderdien aldeko botoekin onartu zuten udaleko lanpostuen zerrenda, pasa den eguazteneko udalbatzarrean. Udalaren 2012rako aurrekontu proposamenagaz batera proposatu zuen Bilduko gobernuak langileen zerrenda, eta PSE-EEKo zinegotzi bien abstentzioagaz onartutaz eman zuen udalbatzarrean gehiengoak.

Onarpenagaz, Zaldibarko Udalaren lanpostu-zerrendan sartu dute KZguneko langileen lanpostua.

Udalbatzarrean gehiengoak onartu zuen udaleko langileen 2012rako zerrenda

Horrenbestez, hamalau langile, aparejadorea, eta arkitektoa dira Zaldibarko Udalaren lanpostuen zerrendak barne hartzen dituen lanpostuak. ■ I.E.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

ELORRIO

Gaur irtengo dute Tinduferako gazteek, elkartasun bidaiari

Amgalako proiektuan jarraituko dute beharrez, kirolgune bateko futbol zelairako materialagaz

Gaur arrastian hartuko dute Tinduferako hegazkina 30 bat elorriarrek, Amgala herrian errefuxiatutako saharauiekin egun batzuk pasatzeko. Institutua, Txintxirri ikastola, Lajwad elkarte eta Elorrioko Udala dira bultzatzaileak. Erakundeotako ordezkariak eta 25 ikasle osatu dute taldea.

Astebete egingo dute Amgalan. Kirolgune bat eraikitzea dute helburu. Futbol zelaiagaz hasi ziren

aurreko urtean, eta aurten atenezako sareak eta marrak pintatzeko makina daroatzate. Egitasmoak zein norabide hartuko duen ere ezagutuko dute. Bestalde, emakumeentzako nekazal eskola ere bisitatuko dute, esaterako.

Institutuko zuzendari Josu Etxaburuk dio konpromisoa betetako proiektua dela, eta "ikasleen erantzukizuna" indartzeko balio duela. Familien babesa eskertu gura izan du. ■ M. Onaindia.



Futbol zelaiaren eremua itxi dute behargin saharauiek.



Ana Otadui alkatea, karpan, informazioa banatzen.

126 ekarpen jaso dituzte animalien ordenantzarako

Plazan ipinitako karpatik 250 herritar baino gehiago pasatu dira, galderekin eta kezkekin

Animaliei buruzko ordenantza behin-behinean onartuta, herritarrei iritzia eskatu zien Elorrioko Udalak pasa den asteburuan, plazan karpa bat ipinita gaiaren inguruan biltzeko. Hainbat jenderen galderei erantzuteaz gainera, 126 ekarpen jaso zituzten. Azaldu dutenez, txakurrak aske ibiltzeko egokituko diren bederatziguneei buruzkoak izan ziren kezka eta galdera gehienak. Espe-

rientziaren gaineko balorazio oso positiboa egin dute udaletik. Ana Otadui alkateak adierazi duenez, "herritarrentzat interes handikoa den gai bati buruzko iritzia galdetzera kalera irten gara, eta ez foro asanbleario baten bidez".

Asteburuan jasotako ekarpenen berri emango du aurrerago udalak, eta ordenantzan horietako zein sartuko duten ere erabakiko dute. ■ M. O.

Gerrako hobeie buruz berbaldia gaur, eta bihar Intxortara bisita

Martxoaren 31n Elorrio bonbardatu zutela gogoratzeko Gerediagak eta Udalak ekintza bi antolatuta dituzte gaurko eta biharko.

Gaur, berbaldia emango du Jimi Jimenezek, Durango 1936 Kultur Elkarteko eta Aranzadiko kideak: *Hildakoak hilobitik ateraz, duintasuna berreskuratuz*. Hainbat urtetan hobi komunaren indusketetan egin du behar Jimenezek. Hitzaldia 19:00etan hasiko du Iturri kultur etxeko areto nagusian.

Aranzadiko Jimi Jimenezek emango du berbaldia gaur, 19:00etan Iturri kultur etxean

Bihar, Memoria Historikoaren Elgetako zentroa eta fronteko erakusketa ikusiko dituzte

Ibilaldia, Elgetan hasita
Bihar goizean Intxortako frontea bisitatzeko ibilaldia egingo dute Elgetako plazan hasita. Bertako kafe antzokian dagoen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa bisitatu eta gero 5 km-ko ibilbidea egingo dute fronteen kokalekuan zehar, bertan atondu duten erakusketa iraukorra bisitatzeko. ■ A.U.

ATXONDO

Anbotoko Dama elkarteak urteko batzarra egingo du apirilean

Anbotoko Dama jubilatuen elkarteak urteko batzar orokorrerako deialdia egin du apirilaren 27rako. Bariku goizean izango da, eta Arrazolako parrokian mezan batuko dira lehenengo eta batzar orokorra egingo dute ostean, 13:00 inguruan. Autobus zerbitzua ipiniko dute Apatatik (12:00etan) eta Axpetik (12:10ean).

Batzarraren ostean Bolibarren bazkalduko dute; jubilatuen etxean eman daiteke izena

Batzar orokorrean zuzendaritza batzordeko kide berri batzuk aukeratu dituzte. Horrez gainera, aurtengo urterako ekintzen programa eta aurrekontuak eztabaidatu dituzte.

Batzarraren ostean, Bolibar-ko Irurok jatetxean bazkalduko dute. Bazkaritara joan gura duenak jubilatuen etxean bertan eman ahal du izena. ■ J.D.

GARAI

Udalak webgunea zabalduko du aurten

Garaiko Udalak hitzarmena sinatuko du Bizkaiko Foru Aldundia-gaz, diputazioaren BiscayTIC zerbitzuan parte hartu ahal izateko. Horrela, udalak webgunea edukiko du 2012a amaitu baino lehen, jakinarazi dutenez. Herriko informazioaz gainera, tramiteak egiteko aukera ere eskainiko du interneteko atari berriak.

Auzoetako bizilagunen nahiz lanean dabilzanen mesederako, tresna "erosoa" izango dela diote udal iturriek. Ziurtariak zuzenean egin zein errol-dan altak eta bajak emateko balioko du, aurreratu dutenez.

Abiapuntua, maiatzean
Udalak interneteko egoitza digitala erosteko kostua ordaindu beharko du, baina webgunearen diseinua doan eskuratuko du. Ordenantza onartu berri dute, eta maiatzean batuko dira lehenengoz BiscayTIC programako arduradunekin, webgunea presatzen hasteko. ■ M. O.

MAÑARIA

Ikastaroetako irakasle bihurtu dira herritarrak

Puntu-lana ikasten dabilta zortzi lagun

Herritarrak eurak dira Mañarian ikastaroetako irakasle. Lagun batzuen interesak bultzatuta, Mañariko Udalak deialdi publikoa egin zuen ikastaroak antolatzeko. Momentuz, puntu ezagutzen ari dira, martxo hasieran zabaldu zuten ikastaroan.

Belaunaldi guztietako bizilagunak elkar ezagutzeko ere balioko duela uste du Endika Jaio alkateak

Martitzenero hamar bat lagun batzen dira liburutegian, 19:15etik aurrera. Bi dira irakasleak, eta ikasleak gainerakoak. Puntuaren lehenengo pausuak ezagutzen dabilta, eta tailerrak oraingoz ez dauka amaiera datarik. Euren erabakiko dute zelan garatuko den. Udalarentzako ez du kosturik eragiten metodo honek.

Endika Jaio alkateak azaldu du ikastaro hauen bidez herritarren partaidetza bultzatu gura dutela. Belaunaldi guztietako bizilagunak elkar ezagutzeko ere balioko duela uste du.

IZURTZA

Alegazio gehien, ur azpian gera daitekeen eremuari

Plan Orokorreko hiru alegazio gai horri dagozkio

Hiri Antolomenduko Plan Orokorra hamahiru alegazio jaso ditu eta horietako hiru gai beraren ingurukoak dira: Elizalde auzoan errekatik errepidera artean dagoen hamar bat hektareako lur zatia. Izan ere, eremu hori "urak hartu

izateko arriskugarri" legez jasotzen du planak, eta izendapen horrekin ez dago zonalde hartan, esaterako, etxebizitzak egiterik.

Udalbatzarrak ez ditu alegazio horiek onartu, baina Luis Ballarín alkateak dioenez, "hurrengo

plana lantzen denerako [hamar urterako iraupena du] izendapen hori aldatzeko asmoa dugu".

Udalak eremu horren azterketa berriago eta zehatzago bat eskatuko dio Uren Agentziari. Mañaria erreka inguruko zein erreka horri buruzko zein errekasto bien inguruetako landak urak hartu izan ditu, baina zonalde osoa horrela definitzea "larregi" dela dio. Udalbatzarrak hamahiru alegazioetatik bi onartu zituen partzialki. EAJ abstenitu egin zen; alkatea ere bai, alde interesatua baita. ■ J.D.

BERRIZ



Antolatzaileak kameren aurrean, udaletxeko lorategian egindako prentsaurrean.

Belaunaldiak elkartzeko, paseoak antolatu dituzte

Urte osorako sei ibilbide prestatu dituzte; domekan izango da lehenengoa

Herriko nagusi eta gazteen arteko erlazioak sendotzea. Helburu hori ipini dute Berrizko Udalak, Gure Izerdia nagusien elkarteak eta Berriz Ere mendi eta kultur elkarteak. Aurtengoa Europa mailan zahartzaro aktiboaren urtea dela-eta, data aprobetxatu gura dute lan horretan sakontzeko. Sei ibilbide aurkeztu dituzte adin guztietako herritarrek batera parte hartzeko.

Etzizako antolatu dute lehenengo txangoa. Berrizko lurretatik egingo dute ibilaldia, goizeko 09:30etik aurrera. BBKren aurretik irtengo dute. Maiatzaren 6an

Berrizko lurretatik egingo dute etziko ibilaldia, goizeko 09:30etik aurrera

ere herritik ibiliko dira, eta ekainaren 3an Urbiara igoko dira. Irailaren 30ean, Berrizen atzera, GR Mikeldi bidearen zati bat egingo dute. Urriaren 28an, Durangotik Berrizera joko dute GR-38tik. Azaroan –eguna zehaztu barik– egingo dute azkena, Olakuetan jaialditxo batez amaitzeko. Doan dira irteerak; udaletxean, nagusien egoitzan edo kiroldegian eman ahal da izena. ■ M. Onaindia

OTXANDIO

Autobus tiketak interneten ere ipiniko ditu salgai Alsak

Otxandioko eta Legutioko udaletako ordezkariak Alsak konpainiaz batzartu dira autobus zerbitzu “eskasaren” inguruan berba egiteko. Peio Otxandiano zinegotziaren esanetan, “jarrera ona” erakutsi dute Alsako ordezkariak eta, obligaziorik ez duten arren—Aldundiagaz duten esleipen motak ez ditu horretara behartzen—, konpromiso bihurtu dituzte: autobus txartelak internet bidez erosteko aukera ipintzea eta Otxandiotik pasatzen den autobusa beteta badoa, erreturako beste bat bidaltzea. Hartutako konpromisoak gauzatzeko eperik ez dute zehaztu.

Otxandion, “behin baino gehiagotan geratu da jendea autobusera igo ezinik beteta ziholako”. Gainera, “azken hiru hilabeteetan bi bider, autobusa etorri ere ez da egin”.

Autobus txartelak interneten erosteko aukera Gasteiztik Otxandiora etortzen direnek eskertuko dute gehien. Izan ere, Madrilera joan zein Otxandiora joan, txartelak saltzeko postu bakarra dago Gasteizen eta ilara luzeak sortzen direnean, “autobusa galdu izan dute hainbat herritarrek ilaran zeudela”. ■ J.D.


Erregistroak euskaraz ere egin ahal dira Bake Epaitegian

Bake Epaitegian erregistroak euskaraz egitea ahalbidetzen duen aplikazio informatikoa martxan ipini dute, eta epaitegiko langileek trebakuntza ikastaroa jaso dute aplikazioa zelan erabiltzen den ikasteko.

Horrela, ume jaioberriaren datuak euskaraz jaso ahal dira aurrerantzean. Ezkontza erregistroari dagokionez ere, familia liburuan agertzen diren datuak, euskaraz eskuratzeko aukera dago. Era berean, heriotza erregistroa eskatu behar denean ere, beharrezko tramite guztiak euskaraz kudeatu daitezke inskripzioa egiten den unean bertan.

Herritarrek jaiotza, ezkontza edota heriotza erregistroak euskaraz egitera animatu ditu Otxandioko Udalak

Otxandioko Udalak herritar guztiak animatu gura izan ditu aukera informatiko berria erabiltzera, “hemendik aurrera udaletxeko kudeaketa horiek egin behar dituztenean, datuak euskaraz eskatzeko”. ■ J.D.



Durangoko Pasaiñoa

XIX. edizioa
apirilak
4,5,6
21:00etan
Santa Ana
enparantzán

asociación cultural
juan de icar
kultur elkarteak



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

12.000 BAIETZ!

anboto
komunikabideak



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIAKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org helbidera idatzi.

2 946816558 telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....

Durangaldean labor

Bisita gidatuak egingo dituzte Elorrioko Zenitara

Apirilaren 6an eta 8an, euskaraz egingo dira bisita gidatuak; 5ean eta 7an, berriz, gazteleraz. Guztiak 11:00etan abiatuko dira Lourdesko Ama ikastetxetik. Beharrezkoa da lekua gordetzea 94 603 2032 telefonora deituta (09:00etatik 14:00etara), edota iturri@elorrio.net helbide elektronikoa (3 euro). Zenitakoleako errota martxan ikusteko aukera eskainiko da, eta Argiñetako nekropolia ere bisitatuko dute.

Izarren behaketa bihar, astronomia elkarteagaz

Ilargiaren %53 argituta dagoela aprobetxatuta, jendaurreko behaketa egingo du Izarra astronomia elkarteak bihar, 21:30ean. Ezkurdi elkartuko dira ilargia ikusteko. Eguraldia egokia ez baldin bada, elkarteak Laubideta 6A helbidean duen egoitzan batuiko dira. Jupiter, Martitz, Orion... ere behatuko dituzte.

Jaietarako kartelaren lehiaketa martxan

Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketa zabaldu du udalak. Apirilaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak, udal liburutegian. Ikusgai ipiniko dituzte, herritarrek bozkatzeko; hiru bozkatuen artean erabakiko du epaimahaia. 400 euro da saria.

Pilates begirale izateko ikastaroa

Berrizko Udalak pilates begirale izan gura duten pertsonei zuzendutako ikastaroa antolatu du herriko kiroldegian. Klaseak apirilaren 21ean, 28an, maiatzaren 5ean eta 12an izango dira, 09:00etatik 13:30era. Amaia Bidartek gidatuko ditu saioak, euskaraz. 65 euro da izen-ematea.

ABADIÑO

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kide izango da udala, uztailetik

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartuko da, Abadiñoko Udala. Abadiñoko Independienteak taldearen eta EAJren aldeko botoekin onartu zuten martitzeneko udalbatzarrean. Martxoaren 27ko udalbatzarrean onarpenaren ostean, uztailetik aurrera izango da Abadiñoko Udala Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kide.

“Uraren kudeaketa gastuak udalak ordaintzea ezin dugu gehiago jasan”, argudiatu zuen Jose Luis Navarro alkateak, partzuergoan sartzea arrazoitzeko.

Navarro: “Uraren kudeaketa gastuak udalak ordaintzea ezin dugu gehiago jasan”

Sarai Mimenza jeltzaleak esan zuenez, Ur Partzuergoan sartzeko “baldintza onak adostea lortu da”. Mimenzaren berbetan, “EAJn beti egon gara Abadiño Ur Partzuergoan sartzearen alde”.

Orain arte Abadiñoko Udalak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoagaz eduki duten hitzarmenaren arabera, ur-sarearen mantentzeko inbertsioen %19 udalak hartuko ditu bere gain. Saneamendulanean, 800.000 euro baino gehiagoko zorra zeukan Abadiñoko Udalak Ur Partzuergoagaz.

“Ez diogu herriarentzako onurarik ikusten Ur Partzuergoan sartzeari”, esan zuen aldiz, Bilduko Aitor Azueta bozeroaleak: “Gure kalterako da, Abadiñok zeukan autonomia galduko baitu”. ■ I.E.

MALLABIA

Ibaialde ikastolari laguntzeko 3.426 euro batu ditu Mallabiak

Sartagudako ikastolaren alde diru-bilketak eta Elkartasun Eguna antolatu dituzte hilabeteotan

Mallabiako herritarrek 3.426 euro eskuratu dituzte Ibaialde ikastolarentzako. Sartagudako ikastolari diru-laguntzak murriztu zituzten Nafarroako gobernua eta egoera ekonomiko zailaren aurrean, Euskal Herri osotik elkartasun adierazpenak jaso zituzten. Mallabian ere hainbat ekimen antolatu dituzte: herritarren tal-

de bat hilabete hauetan dirua batzen aritu da, tabernetan itsulapikoak jarri eta baserrikerri laguntza bonoak saltzen.

Ahalik eta laguntza handiena bildu guran, martxoaren 24an, herriko hainbat kultur elkarte udalagaz bat eginez Elkartasun Eguna antolatu zuten. Goizeko ekitaldietan herritar ugari bildu zen. Triki-poteoaren osteko bazkari herrikoian, berriz, 180 lagun elkartu ziren. Ibaialde ikastolako guraso batek ikastetxearen egoera azaldu zuen, eta mallabiar guztiei esker ona adierazi zien. Antolatzaileak pozik daude ekimenak izan duen harreragaz. ■ J. G.

Elkartasun Eguneko bazkari herrikoian 180 lagun batu ziren Mallabiko frontoian

IURRETA

Antzinako ezteguan parte hartzera deitu dute Oromiñon

1902 urtera atzerabegiratua egingo dute apirilaren 21ean, Oromiño auzoan. Izan ere, antzinako eztegua antzetzuko dute, bertako jai batzordeak antolatuta. Jai eguna izango dute eta bazkarian parte hartzeko deia luzatu dute.

Horretarako, baina, apirilaren 4a baino lehen eman beharko da izena, jakin eragin dutenez.

Ordainketa Buztari kultur elkartearen kontu korrontean egin behar da: 3084-0017-62-6300117738. Umeentzako menuak 10 euro balio du, nagusienak 25 euro (datua zehaztu behar da ordainketa egiterakoan). Ezkontza 1902an kokatuko dute, janzkera eta girotzeko apaingarriak zaintzea eskatu dute (betaurrekorik, mugikorrik edo ume karrorik ez, adibidez). ■ A.B.



Elkartasun Eguneko bazkari herrikoia harrera ona izan zuen.

Orozketan, argindar linea mugitzea gura du udalbatzak

Orozketatik doan Abadiño-Basauri goi-tentsioko argindar linea berritu behar dela eta, auzotik urruntzeko “une egokia” dela uste du udalak. Prebentzio neurri modura, landetatik hurbil eta baserrietatik urrun ipintzea eska-

tu dio Jaurlaritzari. Ezin bada, lurperatzea proposatu du udalak, aho batez hartutako erabakiagaz. Iberdrolaren egitasmoari zuzentzeko egin dizkio, honakoak arrazoituta: kalte paisajistikoak, eragin ekonomiko eta akustikoak, sute arriskua, lurzoruaren okupazioa eta osasun ondorioak.

Euskarri bi eta eroalea aldatu gura dituzte, tentsioan eragin gabe. Jaurlaritzak baimena emateko, lehenago erabilera publiko eta ingurumen agiriak bideratu behar ditu. ■ A.B.

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Podinara Urreta Jainaga

PODOLOGOIA 188. Eikargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

NACEX

San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es

Informazio orokorra: 900 100 000

Hainbat bizitzeko



Pontevedra

0 GROVE. Apirila, maiatza, ekaina.
2 egun - gau 1. Hesperia Isla de
la Toja Hotela****. Mantenu erdia.

45€

Karibe

DOMINIKAR ERREPUBLIKA.
Apirila. 9 egun - 7 gau.
Vik Hotel Arena Blanca****. Dena barne.

799€

EZKONBERRIENTZAKO BEREZIA

New York + Riviera

Apirila, maiatza. 11 egun - 10 gau.
Programaren arabeko hotela. Ostatura
bakarrik (New York). Dena barne (Riviera)

1.420€

EROSKI bidaiak

Dinarrizko prezioak pertsonako logela bikoitzean.
Kontsultatu datak eta antolatzaileen gainerako
baldintzak. Kudeaketa-gastuak (Nazioartea 8€ eta
gainerakoa 6€). Plaza kopuru mugatua. ENK 618.

www.viajeseroski.es



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Nire gurasoei eta beste askori

Durangoko bonbardaketaren 75. urteurrena dela eta, lehengo eta behin, ez dut ahaztu nahi, egun hartan, izeko eta osaba galdu nituela. Osaba (amaren neba) mezan abadeari laguntzen ari zela hil zuten Jesuitetan. Gure aititek, gorpua elizaren kanpo aldean aurkitu zuen baina hilobiratu barik, beste hildako askoren artean kanposantuan utzita, familia Durangotik ateratzen laguntzeko, alde egin behar izan zuen.

Izeko (aitaren arreba), Andra Marin hil zuten. Hondakinen artetik atera eta neben artean gorpua hilobian sartzen ari zirela metrailatu egin zituzten. Bizitza salbatzeko gorpua kanpoan utzi eta eurek sartu ziren hilobian. Gure aita ere, bonben ondorioz, larri zaurituta utzi zuten, konortea galdu eta handik bi egunetara itzartu zen Zornotzan zegoen ospitale antzeko batean.

Hau guztia bizi izan ondoren, gurasoek ideia guztien gainera gizakia zegoela behin eta berriro esanez eta gorrotorik gabeko justiziaren aldarrikapena eginez hezi gintuzten. Euren ereduari jarraituz eta inongo aurreiritzik gabe, 75. urteurren honetan, ekintzaren esanahia eta galdutakoak gogoratuko ditugu.

Pedro Pablo Arrinda - Durango

Uda bat, hamaika irri, euskara giltzarri

Nork ez du ezagutzen Euskal Udalekuetan umetan ibili den lagunik? Edo nork ez dauka bere denbora libreka Euskal Udalekuei eskaini dion ezagunik? Nork ez du noizbait Goñiko Dorrekoako katutxoarekin amets egin? Nor ez da ibili Bernedoko landetan ero-ero? Nor ez da Urdirozteko errekan bainatu? Edo Abaigarreko haskara sartu?

Nik badaukat lagun bat umetan Euskal Udalekuetako txanda guztietan ibili zena: Urdiritzen, Goñin, Bernedon eta Abaigarren egon zen. Berarentzat uda heltzea eta Euskal Udalekuetara joatea bat zetozen; ez zegoen Euskal Udalekurik gabeko udarik. Handi egin zenean, begirale lanetan hasi zen; non eta Euskal Udalekuetan. Ez zuen sosik kobratzen, baina ez zitzaion inporta; berak txikitan jaso zuena bueltatu nahi zuen, umeei sentiarazi nahi baitzien berak txikitan bizi izan zuena.

Aurtengo uda ere heltzear dago eta, 1965. urtean lehenengoz egin zen bezala, dagoeneko bagabiltza udaldia ilusioz prestatzen. Aurten ere, Abaigarren, Bernedon eta Goñin uda ahaztezina biziko dugu euskarak eta euskaraz.

Guk badakigu zer sentitzen eta bizitzen den gure udalekuetan. Ondo pasatzea, maitatzea, ikastea, laguntzea... dira urte hauetan guztietan jaso dugun ordaina. Inolako interes ekonomikorik gabe, lan egiteko prest dagoen lan talde paregabea gara. Ordainetan, Euskal Udalekuen magia jasotzen dugu; norberaren azalean sentitu gabe, kontatu edo deskribatu ezin daitekeena. Eta, zuk, probatu nahi duzu Euskal Udalekuen magia?

Informazio gehiago eta izen ematea zabalik webgune honetan: www.euskaludalekuak.org

Durangaldeko Euskal Udalekuetako hezitzaileak

Sei hankako mahaia

Zerutik
sua
dator



Aitziber Irigoras
EAJ

Umeanintzalarik urteakemon nebazan aitite-amamen etxean bizi izaten. Amamakantzinako ipuinak kontatzen eustazan Mariri buruzkoak, eta aititegaz mendira joan ohi nintzen kukuaren kantua entzuteko. Lantzean-lantzean euren gazte sasoiari buruzko galderak egiten nebazan. Nik banekien euren gaztaro hartan zozero arraroa egoala, zati batzuk ilunak iruditzen jatazan. Gure aitak behin eta barriro galdetzen eutsen aspaldian gertaturiko gerra batean euren bizipenei buruz. Aititekez eutsen berehalako erantzunik emoten, ez zan eroso sentitzen. Astiro-astiro ulertzen hasinintzen. Jakin izan neban Durangok izugarrizko bonbardaketa jasan ebala udabarriko egun batean. Eta jakin nahi izan neban gertakari horretan nire aitite-amamek zer egin eben. Aitite Durangon permisuan egoan gudaria zan, Arana Goiri batailoikoa, eta bonbardaketaren lehen buelta amaitutakoan zaurituak hondakinetatik ataritzen ibili zan. Amama neskutsa zan, umea, eta, ikusitakoak ikusita, lubagitik lubagira ibili zan egun osoan. Ondoren, amesgaiztoz beterik bialdu eben gurasoek gerrako haur moduan Ingalaterrara. Gero, kartzela eta errepresioa, lan batailoiak, gosea, laidoak eta isiltasuna.

Egun badago tentazio berezi bat, zuriz jantzitako arrisku baltza. Badagoz gerra eta diktadura bidezko tzen dabeen adituak. Eta badagoz, baita be, Errepublikaren ondare gorria gorai patuz gainerakoak bazterten dabezan jakintsu amorratuak be. Azken horientzat errepublikazaleen eta, ondoren, errepresaliatuen artean sindikalistak, sozialistak, komunistak edo milizianoak baino ez ziren egon. Egia estaltzeko tresna finagoa da, zalantza barik. Baina errealitatea oso tematia da, eta ezku-taezinak dira hainbeste gudari aber-tzaleak, errefuxiatu eta erbestera-tuak, gerrako espe eta klandestini-tateko lagunak. Ezin ilun leike Agirre Lehendakari jeltzalearen jokaera duina. Horien guztien memoria ekarri nahi dot gaur hona, Durangoko Bon-bardaketaren 75 urteurrenean, nire familiaren sufrimendua eta nire alderdikideena, EAJko hainbeste eta hainbeste kideena be. Horretarako senide legez legitimatuta nago elako. Horretarako, alderdigisara bizi izan-dako sufrimenduak EAJ legitima-tzen dabelako.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean
sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko martxoaren 30a
10. urtea - 453 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilariak: Kepa Aginako,
Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale


@anbotokultura

KULTURA

TXELU ANGOITIA > ARGAZKILARIA

“Pentsatzera eta sentitzera derrigortu gura dut jendea”

Txelu Angoitiak diseinatutakoa da Durangoko Santa Susana ikusgai dagoen ‘M3 (In Memoriam)’ instalazio artistikoa. 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren osteko sasoia du inspirazio iturri



Zer ideiarekin inguruan jardun duzu ‘In Memoriam’ instalazio hau sortzeko?

Aurretik, Durangoko bonbardaketaren gaia beti landu izan da ikuspuntu dokumentalista batetik, begirada historikotik, edo baita ikus-entzunezkoen eta ekitaldien bitartez ere. Honetan, gaia beste ikuspuntu batetik jorratzea izan da helburua. Elementu artistikoak baliatuz jardutea, gehiago sentsazioak sortzeko helburuz, informazioa eman guran baino.

Zer sentsazio lortzea izan duzu helburu?

Bonbardaketako unea bera baino, bonbardaketa ostean geratzen den hutsunea hartu dut ardatz: bonbardaketa osteko ezinegon sentsazio hori sortzea zen helburua.

Hainbat elementu osatzen dute instalazioa. Zeintzuk dira elementuak eta zergatik aukeratu dituzu?

Lehenengo lana instalazioa kokatzeko leku aproposa topatzea izan zen. Santa Susana eliza hau ikusi nuen egokien: Durangoko bonbardaketagaz lotutako leku oso simbolikoa da. Jende asko hil zen hemen bonbardaketaren eraginez, eta oso espazio berezia da orain: eliza abandonatua. Hainbat elementu artistiko kokatu ditugu leku honetan: argazkiak, eskulturak, soinua, elementu eszenografikoak...

Zeuk landutakoak dira instalazioan batutako elementu guztiak?

Errepikapenean oinarrituta dago argazkien parteak: 336 argazki dira, hildako bakoitzeko bat, eta 336 dira ipini ditugun kandelak ere. Elena Solatxik instalaziorako propio sortutako eskultura bat ere badago ikusgai. Tarkovsky zinegilearen lanen eraginez beharbada, ur tanten soinuagaz ere jokatu dut. Hezetasuna iradokitzeke eta bonbardaketaren ostean hoditeria guztia zelan apurtzen den islatzeko baliatu dut soinua.

Aitorleku batean Joseba Sarrionandiaren esaldi bat ere badago.

Bai, *Akordatzen naiz* liburutik ateratako esaldia da. Amamak kontatutakoa aipatzen du Sarrionandiak: bonbardaketaren ostean Durangoko kaleetako triskantza hain zela handia, kaleetan zehar ibiltzea ere zaila zela zioen amamak.

Zein izan da proiektua proposatu zizutenetik argi eduki duzun ideia?

Sentsazioak sortzea, eta mina eta sufri-mentu indibiduala islatzea gura nuela. Zerbakiak ematen dira askotan: Durangoko bonbardaketaren kasuan, 336 hildako, ehundaka zauritu... Baina, zerbakiak hotzak dira. Hildako bakoitzari omenaldia egitea izan da asmoa: horregatik proiektatzen ditugu euren izen-abizenak.

Zer helburuz ipini duzu hildakoen izenen proiektzioa?

Hildako bakoitzaren atzean istorio bat, familia bat, lagunak daudela adierazi gura izan dut. Bisitariarengan gogoeta sortu gura izan dugu, batez ere. Erreflexio horrek bakoitzaren noraino eramango duen, baina, zabalik geratzen da. Pentsatu eta sentitzera derrigortu gura izan dut jendea.

“Hildako bakoitzaren atzean istorio bat, familia bat, lagunak daudela adierazi gura izan dut”

“Bonbardaketa sarraski itzela izan zela badakigu: mina barneratzeko modua eskaini gura genuen”

Zuretzat ere pentsatu eta sentitzeko aukera izango zen instalazioa sortzea...

Bai. Urte batzuk daramatzagu memoria historikoa eta Durangoko bonbardaketaren gaia jorratzen, eta apurka-apurka istorioan sartzen zara. Oso proiektu polita izan da.

Zelakoa izan da sormen prozesua?

Idea batzuk aurretik geneuzkan, baina elizara sartu, eta hainbat gauza aldatu egin ziren lekura moldatzeko. Instalazio oso minimalista dela eman dezake, baina lan handia dauka atzean. Irudi eta soinu oso gogorak erabili genitzaiken, baina ez zen hori gura genuena. Bonbardaketa sarraski itzela izan zela badakigu, orain min hori barneratzeko modua eskaini gura genuen.

Antzeko beste instalazioen baten erreferentziagaz egin duzu lan?

Ikusi ditut hainbat instalazio, bai: Berlinen hainbat bisitatu genituen, esaterako. Elementu zehatzak ez, baina ideiak jasotzen dituzu: bisitari moduan zer sentitu dezaitezun ikusten duzu, adibidez.

Zelan erantzun dute bisitariak hemen?


Bakoitzak bere erara bizi du: negarrez ateratzen dira batzuk, elementu guztiak ikusi barik beste batzuk... Badago jendea bi-hiru biderrez etorri dena, eta altarean jesarrita tarte bat ematen duena. ■ I.Esteban

Durangoko bonbardaketaren 75. urteurreneko oroimen ekitaldien Zilar Asteko egitarauaren barruan dago Txelu Angoitia argazkilari durangarraren *M31 (In memoriam)* instalazio artistikoa. Martxoaren 31ko bonbardaketa egunaren aurreko eta osteko egunetan, Santa Susana elizan egon da lana bisitagai. Domekara arte izango da bertaratzeko aukera.

Gaur, 18:30etik 20:30era arte egongo da instalazioa ikusgai. Asteburuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

Bisitariari orain 75 urteko Durangoko bonbardaketaren osteko giroaren irudia helaraztea da Angoitiaren asmoa. Ikus-entzulearen zentzumenei eragiten die horretarako. Sentsazioak eta emozioak iradokitzeke, besteak beste, ur-tanten soinua, iluntasuna, argazkiak eta Santa Susana elizaren berezko hezetasuna eta hotza baliatzen ditu bere lanean.

Bisitariaren zentzumenei eragiteko irudiak eta soinuk



ANTZEZPENA > DURANGON

Belaunaldi aldaketa irudikatuko duen Pasiñoa antolatu dute

Santa Ana plazan izango da Durangoko Pasiñoaren hitzordua, apirilaren 4, 5 eta 6an



Juan de Iciar elkarteak urteak daramatza parte-hartzaileak berri guran, belaunaldi aldaketa bultzatzen, Durangoko Pasiñoaren antzezpenean. Datorren asteko emanaldiek irudikatuko dute Durangoko Pasiñoaren belaunaldi aldaketa hori. "Gazteek antzeztuko dituzte hogeitortzi pertsonaia nagusiak", elkarteak Xabier Arana kidearen berbetan. Iaz herritarrek edo soldaduak antzeztu zituzten gazteak izango dira aurten protagonista.

Juan de Iciar elkartearen lehenedakari berria da Xabier Arana, eta dioenez, ikuskizuna "gazteagotu" gura dute, helburu batez: "Gazteak Durangoko Pasiñoan parte hartzea zein ikustera etortzeko erakartzea".

Via Cruciseko Jesusen hiru erorketen antzezpenean berritasunak egin dituzte, Aranak azaldu duenez, Durangoko Pasiñoaren 2012ko emanaldirako. Jesusek bere ama Mariarekin, Veronicarekin eta Cirineorekin topo egiten duenekoak, eta hiru erorketen gel-

Juanjo Etxartek jardungo du ikuskizuna zuzentzen

Bi urterik behin hartzen du Juanjo Etxartek Durangoko Pasiñoa zuzentzeko ardura. Pasiñoaren antzezpenean hamargarren aldiz zuzenduko du Etxartek aurten. Apirilaren 4, 5 eta 6ko emanaldietan egingo du Jesusen papera, lehenengoz, Egoitz Iraurgik. Iaz bezala, Izaskun Astondoak jardungo du Mariaren paperean.

Durangoko Santa Ana plazako Arco tabernan ipiniko dituzte antzezpenerako sarrerak salgai (6 euroan). Eguaztenean, eguean eta barikuan, 21:00etan, plaza horretan izango dira bi ordu eta erdi inguru iraungo duten Pasiñoaren emanaldiak.

Xabier Arana: "Gazteek antzeztuko dituzte 20 pertsonaia nagusiak"

Sei geldialdi izango ditu aurten Durangoko Pasiñoako Gurutze Bideak

dialdiak izango ditu aurten Durangoko Pasiñoako Gurutze Bideak.

Hurrengo urteetako antzezpenean herritar papera egiteko prest legokeen jendea ere gonbidatu dute. "Herritarren papera egiteko ez da prestakuntza berezirik behar, eta jende gehiagorik ikusgarritasuna irabaziko luke Pasiñoak", dio elkartearen lehendakari Xabier Aranak. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Julian Bakedano
Zinegilea

GEORGE L. STEER

Durangoko eta Gernikako bonbaketen 75. urteurrena gogoratzen ari garen honetan, egun hauek aproposak dira Geroge L. Steer kazetari britaniarra omentzeko, *Gernikako Arbola* liburu hunkigarriaren egilea, erreportajerik belduragarri eta zuzenena Gerra Zibilari buruz Euskadin. Liburua hiru bider argitaratu dute gaztelaraz. Lehenengoa 1965ean, Montevideoko Ediciones Gudari-k (Alberto Elosegik); bigarrena Madrilen, erreforma demokratikoaren hasieretan, lehenengo argitalpenaren irudi eta argazki baliotsuak erauzita; eta hirugarrena, 2002an, Txalaparta argitaletxeak.

Gerra kritikatzeko duen lan hau erabat debekatu zuten frankismoan. Gure artean gerra zer izan zen bertatik bertara kontatzen du, eta herritarren eta orduko Euzko Jaurlaritzaren jarduna omentzen ditu; Jose Antonio Agirre elkarrizketatu eta liburuan argitaratu zuen. *The Times*-en berriemailea Gernikako bonbaketen lekuko zuzena izan zen, eta bere kronikak erabakigarriak izan ziren bertsio faxista desmuntatzeko, herria euskaldunek beraiek suntsitu zutela zioena.

Steer Bilbora zelan iritsi zen, bere biografo Nicholas Rankinek kontatu zuen (*Cronica desde Guernica. George Steer, corresponsal de guerra, SIGLO XXI*, 2005) eta liburuak gezurtatu egiten du Steer agente britaniarra zenik, Lorenzo Sebastian historialariak zalan-tzan jartzen duen moduan. Rankinek testuinguruan kokatzen du Hegoafrikan jaiotako kazetariaren obra, aintzat hartuta zein gatazka armatutan ibili zen horien berri eman ahal izateko: Etiopia-Musolinirekin inbasioetarako faxismoarengandik askatu arte-, Espainiako gerra zibila eta bere esku-hartzea Ingalaterrako ejerzito, II Mundu Gerrak iraun zuen bitartean, fronteko propogandista gisa Ardatzeko soldaduen kontra. Heriotzak Indian harrapatuko zuen, Irrati-difusio Kanpainarako Unitateen buru zela.

2010ean Bilboko Udalak kale bati bere izena ipini zion, eta ekitaldian bere semea egon zen, George Barton Steer.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Adiskidetasunari buruzko Gorakadaren obra, Berrizen

Gaur, 18:00etan, Kultur Etxean eskainiko du Gorakadak adiskidetasunari buruzko 'Printzea eta ahatea' antzezlana

"Haize berria dabil: piku zikuen eta sagar pastelaren usaina dakarren udazkeneko haizea". Horixe da Abadiñoako Gorakadak abenduan aurkeztu zuen umeentzako antzezlaren aurkezpena.

Gaur, 18:00etan, Berrizko Kultur Etxean eskainiko dute Javi Tirado eta Jokin Oregik sorturiko obra. Reyes Moleres eta Susana Soletok dira obrako antzezleak.

Laguntasuna bezalako gaiei buruz, soiltasunez dihardute obran Gorakadako sortzaileek. Gaztelu bat, zuhaitz bat eta etxe bat dira istorio hau kontatzeko baliatzen dituzten elementuak.

Ogro txikia obrarako nahiz Gorakadaren beste hainbat antzezlantarako bezala, Fran Lasuenek sortu du *Printzea eta ahatea* honetarako musika. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 30 22:00etan
APIRILAK 1 19:00etan
LURRA ASTINDUZ
San Agustin kultur gunean.
ANTZEZLANA. Sarrera: 5 euro.

MARTXOAK 31
18:15etan Kurutziagatik hasita
20:00etan Andra Marin
BONBARDEAKETAREN IBILALDI KULTURALA
Musika, antzerkia, dantza,
ikusentzunezkoak eta oroimen ekitaldia

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

www.plateruena.net

LURRA ASTINDUZ
Karrika Antzerki Taldea

ZILAR ASTEA 012
durangoko bonbardaketaren 75. urteurrena

Martxoak 30 • 22:00
Apirilak 1 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

BERTSOLARITZA > SARIKETA

Martxoaren 23an, Lea Artibaiko bertsolariekin kantatu zuten Durangaldeko sei bertsolariek, Bilboko Kafe Antzokiko Bertsolari Gazteen BBK Sariketaren finalean. Beste taldeak baino 39 puntu gehiago batu zituen Durangaldeak, pasa den barikuko saioan.

Epaimahaikoen esanetan, "goi mailako saioa" osatu zuten bertsolariek

Epaimahaikoen esanetan, "goi mailako saioa" osatu zuten Durangaldeko eta Lea-Artibaiko bertsolari gazteek, joan zen barikuko Bilboko finalean. Guztira, 421 puntu batu zituzten Durangaldekoek: Txaber Altubek, Igor Uruburuk, Ane Alegriak, Aitor Bizkarrak, Julen Sololuzek eta Eñaut Uruburuk. Lea-Artibaikoek, 382.

Abantaila handiena, hamazortzi urtera arteko hirukoteak atera zuen: Lea-Artibaikoek baino 17 gehiago lortu zituzten Durangaldekoek.

Gainera, Txaber Altubek ere sari bat jaso zuen: sariketan zehar bizkaiera egokien erabili duenari epaimahaia eskaintzen dion saria, hain zuzen.



Durangaldea nagusi Bilboko bertsolari gazteen finalean

Hirugarren biderrez jantzi du txapela, Lea-Artibairi 39 puntuko aldeagaz irabazita

Sariketa honen 20 edizioetan parte hartu du Durangaldeak, eta hirugarren aldiz lortu du Durangaldeko bertsolariek txapela: 2005ean eta 2006an irabazi zituz-

Txaber Altubek ere sari bat jaso zuen: bizkaiera ondoen erabili duenari

ten aurreko txapelak. Horietan, Miren Amuriza ere saritu zuten: finalistarik gazteenaren saria 2005ean, eta bizkaiera egokiaren 2006an. ■ I.E.

Puntuazioak

Durangaldea
18 urtera arte: 168
19-24 urte artean: 253
Guztira: 421

Lea Artibai
18 urtera arte: 151
19-24 urte artean: 251
Guztira: 382

MUSIKA > KONTZERTUAK

Eskualdeko 30 taldek joko dute apirileko II. Greatest Hits jaialdian

Apirilaren 20an eta 27an, Durangoko Plateruenean egingo dituzte jaialdiaren emanaldiak



Asier Arroita

Durangaldeko 30 musika talderen zerrenda osatu dute apirilaren 20an eta 27an burutuko duten II. Greatest Hits jaialdian parte hartzeko. Orain bost urte antolatu zuten lehenengoz jaialdia.

"Rock talde mitikoen abesti klasikoak jotzeko" elkartu ziren lehenengo edizioan parte hartu zuten 25 taldeak.

Durangoko Plateruenean izango dira kontzertuak: bost euroko sarreragaz

Askotariko musika jorratzen duten Durangaldeko musika taldeek parte hartuko dute, apirilaren azken bi barikuetan. Besteak beste, Elorrioko Namek Planet, Berrizko Zain eta Mafia, Duran-

goko Yoko Out eta Mongo arituko dira Greatest Hits jaialdiaren bigarren edizioan.

Disorders taldeko zaldibartarrak berriro elkartuko dira jaialdian parte hartzeko, eta Rock Izar eskolako ikasleek eta irakasleek osatu duten taldeak ere joko du.

"Durangaldeko musika sortu zuten musikari benaunaldi berriak eta zirkuituan urte asko daramatzaten beteranoak elkar ezagutu eta esperientziak elkarbanatu", eta horretarako aukerak eskaintzea. Musikariek nahiz entzuleek musikagaz gozatzeko giroa sortu gura dute jaialdian.

Plateruenean izango dira kontzertuak. Bost euroko sarrera ipiniko dute, eta taldeen materialaren zozketan parte hartu ahalko da beste euro baten truke. ■ I.E.

Hamaika
ikusteko, bizitzeko



LTD/Euskaltel bidez



Ordenagailuan



Ipad/Tabletean



Mugikorrean

Nazioa eskura
www.hamaika.tv

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK



- Jon Sopelana
- Iunik ileapaindegia dauka Durangon



Udaberrirako tendentziak

Zer tendentzia ikusiko dugu hurrengo hilabeetan?

Ilearen tendentzia gure eguneroko bizitzan egiten ditugun gauzekin lotuta dago. Koloreak batez ere naturalak eroango dira. Eguzkiagaz, ilearen puntak argiago geratzen dira, eta ile tratatua, distiragaz eta zakartu barik egotea lortu gura dugu. Distira eta tonuak naturak ematen dizkigun antzerakoak izango dira, lur eta eguzkitik datozenak. Akaso metxekin sortuko ditugu kontrasteak, baina ez oso markatuak, efektu naturalak potentziatzeko bakarrik.

Zer duzue oinarri ilea mozterakoan?

Iuniken beti korte teknikoak egin izan ditugu, aurretik diagnostiko bat egin eta gero, irizpide hauekin: bezeroaren ilearen itxurari, egiturari jarraituz, eta bere nahiei eta estiloari. Beraz, ilearen joera ere errespetatu egiten dugu mozterakoan. Eragina, etxean orrazterakoan igartzen da.

Zer zerbitzu nabarmenduko zenuke?

Olio eta usaimenagaz jolastuz masaje lasaigarri bat ematen diogu; kolorea jasoz gero eskuetan ere bai.

Besterik?

Estiloa eraikitzeke naturaz berba egiten gauden honetan, gizartea neurri bako kontsumoan sartuta eta amalurra suntsitzen, apirila lurraren hilabetea izendatu dugu. Uraren garrantzia azpimarratu gura dugu, bere eskasia gero eta leku gehiagotan nabaritzen da-eta (Info+: www.aveda.es). Bestalde, Aste Santuan Londreseko ikastaro batzuetara noa. Han informazioa jasotzea dut helburu. Apirilaren 5etik 11ra ileapaindegia itxiko dugu, berrizteko aprobe-tzatuz.

ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa

Nerea Mallabiarrena • Merche Garcia
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAKO masaje indiarrek antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

synthesis

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA


- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Goienkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

@anbotokirola

KIROLAK >

“Play off-a gatz dago, baina lorgarria da; oraindino esateko asko izan dezakegu”



DATUAK

Izen-abizenak:
Ander Pinilla
Adiña: 27 urte
Herria: Berriz

IBILBIDEA

- **2003 urtera arte:**
Berrizko kategoria guztiak
- **2007 / 2010**
Elgoibar taldeagaz
Hirugarren mailan.
Play off bi jokatu zituen
- **2010 / ...**
Durangoko Kulturala.
Iaz *play off*-a jokatu zuen

ikusten da azken urteetan indarra galdu duela. Elorrio eta lurretako, esaterako, Berrizen aurretik ipini dira. Ea ahalik eta arinen sasoi bateko maila berreskuratzen duten.

Imajinatzen duzu Elorrio Hirugarren mailan? Derbi interesgarriak izango lirarteke.

Errugbian badago derbi hori eta lehia handia egoten da taldeen artean. Poztuko nintzateke futbolearen ere emango balitz. Gainera, lagunak ditut Elorrioren, Iban Munitis eta Raul Ramos, esaterako.

Berrizen Rikardo Txintxurretaren aginduetara egon zinen.

Halaxe da. Beragaz eman nuen gazteen mailatik talde nagusirako pausua. Nigan konfiantza jarri zuen eta partidu asko jokatu nituen.

Txartel gorriena bolada arraroa izan zen; sarritan ez genuen merezi inor egozteaz

Berriztik Elgoibarrera joan zinen 24 urte zenituela, Ohorezko mailatik Hirugarren mailara.

Erritmoaren aldetik aldaketa handia somatu nuen. Gainera, ez nuen inor ezagutzen eta lehenengo urtea gogorra egin zitzaidan. Ondorengo urte biak zoragarriak izan ziren, *play off*-etarako sailkatzea lortu genuelako.

Elgoibarren hain ondo ibilita, zergatik erabaki zenuen Kulturalera etortzea?

Kulturalak bi denboraldiz segidan egin zidan eskaintza. Lehenengoan Elgoibarren geratzea erabaki nuen. Taldeari zor niola sentitzen nuen, Hirugarren mailan debutatzeko aukera eskaini zidalako. Hurrengo urtean pozarren etorri nintzen. ■ J.Derteano

Ligako azken txanpan sartuta, Durangoko Kulturalerako hamaikakoan finkoetakoa den Ander Pinillak orain arteko bidea eta aurrera begirakoa aztertze-ko galderei patxadaz erantzun die, itxaropentsu baina ikuspegi errealistagaz.

Aurtengoa bigarren denboraldia duzu Kulturalerako. Hamaikakoan finkoetako bat zara eta iaz *play off*-a jokatu zenuen.

Oso pozik nago. Futbol jokalariek batek beti desio du ahalik eta mailarik gorenean jokatzeko, baina Durangon orain arte bizi izan dudana handia izan da. Futbolari legez Kulturalerako erretiratzea gustatuko litzaidake. Kluba maila guztietan lan ona egiten ari dela iruditzen zait; harrobitik hasi eta nagusietaraino.

Taldearen ibilbideari dagokionez, azken urte biak oso onak izaten ari dira.

Taldea ondo ari da. Axierrek [Intxaurreagak] beste filosofia bat ezarri zion taldeari, baloiaren jabetzan eta konbinazioan oinarritua, eta Mikelek [Agirregomezkortak, gaur egungo entrenatzaileak] horri eutsi dio bere nortasun propioa txertatuz. Iaz emaitza oso onak eman zizkigun. Aurtengorako baja batzuk izan ditugu, baina, ligako tarte batzuk kenduta, sendo gabiltzala uste dut. *Play off*-etara sailkatzen bagara ederto, baina beste la ere denboraldia positiboki baloratzekoa izango da.

Kulturalerako jokamolde berria ezin hobeto datorkizu zuri.

Bai, txikitxoak modan ipini gara, ezta?

Txabi eta Iniesta Bartzelonan, Ander Pinilla Kulturalerako.

(Barreak) Baina salto egin behar bada salto egiten dugu gero! Egia esanda, Kulturalerako gaurko jokamoldea oso ondo egokitzen da nire dohaletara.

Ligako azken txanpara sasoi betean heldu zarete; azkenengo zazpi partiduetan lau garaipen eta porrot bakarra.

Gaztea nintzenetan beteranoei sarritan entzuten nien: “Azken hamar partiduetan izaten dira garrantzitsuenak”. Eta egia da. Martxa honetan jarraituz gero, esateko asko izan dezakegu.

***Play off*ak dira helburua**

Gure lehenengo helburua mailari eustea zen eta dagoeneko hori lortu dugu. Hemendik aurrera, ahalik goren amaitzea dugu helburua. Ikusiko dugu noraino heldu ahal garen.

Borroka latza dago goialdean, talde asko puntu gutxiren barruan.

Orain bost puntura dugu laugarren postua. Gorago dabilzan taldeak beharbada ez dira gu bezain irregularrak izan eta orain abantaila dute. Hala ere, lehia estua dago; segidan bi partidu irabaziz gero, berriro borroka betean geundeko. *Play off*-a gatz, baina lorgarria da.

Golik sartu duzu aurten?

Aurten ez. Iaz sartu nuen bat: ondoko sake bat atera eta zuzenean sareetara joan zen. Etxean beti esaten didate gehiago jaurtitzeko. Nire ustez, jokalariek batek bere tokia zein den jakin behar du eta nik badakit zertan naizen hobe: jokoa banatzen.

Bartzelonako Txabik, esaterako, mentalitatea aldatu zuen eta golak sartzen dabil.

Hori ere egia da eta ados nago mentalizazioak duen garrantzia-

Harrobitik hasita, kluba lan ona egiten dabil maila guztietan; gustatuko litzaidake hemen erretiratzea

Lehen helburua lortu dugu: mailari eustea; ikusiko dugu aurrerantzean noraino heldu ahal garen

gaz. Ba begira: liga amaitu bitartean gutxienez gol bat sartzen ahaleginduko naiz.

***Play off*-etarako sailkapena emango dizuen?**

Horixe bera! (Barreak).

Ligaren hasieran, batez ere etxetik kanporako partiduetan, txartel gorri asko ikusi zenituzten. Zer gertatu zuen?

Benetan bolada txarra eta arraroa izan zen. Baloiaren jabetza normalean gurea izaten dela kontuan hartuta, ez genuen ulertzen zelan amaitu genezakeen beti hamarrek. Hirugarren mailan hamarregaz geratzea partidu erdia galdua izatea da. Nire ustez sarritan ez genuen merezi inor egozteaz, baina epaileen lana ezin dugu kontrolatu eta, geurean zentratuz, autokritika egin genuen: lasaiago jokatu, tentuz ibili...

Errepasa dezagun zure kirol ibilbidea. Berrizko taldea izan zen zure lehenengo taldea.

Berriz futbol taldeko kategoria denetan jokatu nuen; haurtxoetatik hasi eta nagusietaraino. Hantxe hezi nintzen futbolari moduan. Gainera, ibilbide hartan igoera bi lortu genituen: gazteen mailan eta nagusietan, Maila gorenetik Ohorezko mailara.

Iaz Maila gorenera jaitsi ziren eta aurten ere larri dabilte. Ez da Berrizentzat sasoirik onena.

Pena da. Ez dut ezagutzen barrutik zer gertatu den, baina



Iazko aldian 300 gaztetxo batu ziren Durangoko Landako kiroldegian. Asier Arroita

500 gaztetxo batuko ditu zapatuko judo jaialdiak

Euskal Herriko zein nazioarteko gaztetxoen 23 taldek parte hartuko dute Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan izango den jaialdian

Durangoko Judo Taldeak antolatzen duen Nazioarteko III. Judo Jaialdiak inoizko parte-hartzerik handiena izango du zapatuan: 500 gaztetxo batuko dira (zortzi eta hamasei urte artekoak) Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Lehia baino gehiago, judoaren inguruko topaketa erraldoia izan gura du ekimenak, elkar ezagutzatza sustatuko duena.

Guztira, 23 judo taldetako gaztetxoak batuko dira tatamiaren bueltan, eta adinaren eta pisuaren arabera banatutako txapelketan parte hartuko dute, 11:00etan hasi eta 19:00ak

Lehenengoz egingo dute ekimena Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan

ingurura arte. Talderik gehienak euskaldunak dira, baina Herrialde Katalanetakoak, Espainiakoak, Frantziakoak eta Portugalgoak ere hurreratuko dira. Lehenengo aldia izango da Portugalgo talde bat datorrena Durangora. Frantziatik iaz ere etorri ziren judoka gutxi batzuk, baina aurten autobusa beteko dute.

Aurten lehenengoz egingo dute ekimena Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan, eta ez Landako kiroldegian. Erdigunera hurreratuta, gaztetxoei nahiz gurasoei herria bisitatzeko aukera erraztu gura diete, besteak beste.

Sokatira saioak

Judoken arteko hartuemana landu asmoz, sokatira saioak egingo dituztela da aurtengo beste nobedadeetako bat. Bertaratuko klub guztietako gaztetxoak taldeetan nahastuz egingo dituzte tiraldiak, aurkariak lagunak ere badirela erakutsi guran. ■ J.D.

Gurutze Frades sasoi onean dago Durangoko duatloirako

Bizkaiko txapelketa irabazi du durangarrak

Zapatuan, 16:00etan, Durangoko VI. Duatloian lehiatuko dira, Durangon, Mugarra Triatloi taldeak antolatuta. Emakumeetan, Gurutze Frades durangarrak Euskadiko txapelkun izatea bila-

Ermuan nagusi izan zen sprint modalitatean hasieratik bukaerara

tuko du eta sasoi betean helduko da lasterketara. Izan ere, joan zen asteburuan, Ermuan, Bizkaiko txapelkun izan zen sprint modalitatean. Hasi eta amaitu, nagusi izan zen Frades.

Urtero legez, duatloirean harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Mugarra: triatloi eskolako gaztetxoen erakustaldia, kirol materiala saltzeko postua, Bkool bizikleta estatikoan lasterketa korritzeko aukera eta abar. ■ J.D.

ADITUAREN TXOKOA

Ruben Perez
Euskaltel Euskadiko txirrindularia



Euskal Herriko itzulia

Euskal Herriko Itzulia hurreratzen ari da apurka eta World Tour delakoaren barruan dagoen lasterketa bat da. Liga hori munduko lasterketarik onenek, World Tourreko hamazortzi taldek eta talde gonbidatu bik osatzen dute.

Guretzako garrantzitsua da Euskal Herriko Itzuli on bat egitea, etxean lehiatuko garelako eta babeslei zor diegulako; ahalegin handia egiten dute garai gax hauetan taldea egon dadin. Munduan inbidia sortzen duen zalegoa dugu hemen eta horrek gure lana hobeto egiten laguntzen digu. 'Samu' izango da taldeko liderra eta talde indartsuak babestuta egongo dela uste dut.

Ni ez naiz lehiatuko, alergien ondorioz sasoi hauek ez direlako niretzako aproposenak. Parte hartu izan dudana azken aldietan errendimendu baxua izan dut eta ez naiz gustura ibili. Zaleen aurrean lehiatzen ibili eta benetako maila ezin emateak adorea kentzen du. Horren ordez, 'monumentuak' legez ezagutzen diren Flanders eta Paris-Roubaix-en lehiatuko naiz. World Tour-aren barruko klasikak dira, oso gogorak; ez harlauza gaineko tarteengatik bakarrik, baita etengabeko tentsioagatik eta uneoro tropelean ondo kokatuta egoteko mantendu behar den abiadura biziagatik ere. Lasterketa buruan sartzea garrantzitsua da, pelotoia luzatu eta apurtu egiten baita. Kokapen egokian dago gakoa, beti ere hanke erantzuten badute. Niretzako nobedadea dira, sekula ez naiz horietan aritu eta ikasten saiatuko naiz. Ea zer eman dezakedan.

* Erredakzioan itzulia

Bizikletan ibili eta ingelesa ikasteko ikastaroa uztailean

Iazko lehen aldiaren arrakastak animatu ditu antolatzaileak aurten errepikatzen

Durangoko Txirrindulari Elkar-teak bizikletan ibiliz ingelesa praktikatzeko aukera eskainiko du aurten ere. Ikastaroa uztailearen 2tik 13ra izango da eta bederatzi eta hamabost urte arteko gazteei zuzenduta dago. Gehienez 35 laguneko taldea osatuko dute.

Aste bi horietan gazteek bizikleta modalitate asko probatuko dituzte: errepidea, mountain-bikea, pista... Horrez gainera, bizikletak izaten dituen ohiko matxurak eta zulatuak

konpontzeko oinarrizko nozioak ikasiko dituzte. Ekimen horiek guztiak garatzeko hizkuntza ingelesa izango da, monitore biak bata Erresuma Batukoa eta bestea Irlandakoa direlako. Monitore euskaldun bik hurretik jarraituko dituzte ekimenak, ikasleei laguntzeko. Errepideko bizikletarik ez dutenei bat utzi-ko zaie.

Izena emateko, e-postaz, scduranguesa@euskalnet.net, edo baita telefono bidez ere, 629 823 162. ■ J.D.

katerin ardoak
iñaki uribe

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltzan
saltzan.com

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

A CENTRAL FORESTAL

Baserriarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

Hiri Frogan eskola ume gehiago aritzea gura dute

Azken orduko ezustekorik ezean, ez da afrikarrik egongo irteeran



Lasterkariak lurretako kaleetatik zehar, iazko edizioan. Felix Sanchez

Domekan atletismo zalez beteko dira lurretako kaleak, Hiri Frogaren XXXII. edizioan. Aurrekontuak baldintzatu egongo da, baina "maila onekoa" izango dela aurreratu du Bidezabal taldeko Aitor Casal antolatzaileak. Eskoletako gazte txoen parte-hartzea sustatzea dute aurten helburu nagusi.

250 korrikalari itxaroten dituzte domekarako. Maila absolutuan, gizonak hamar kilometro osatu beharko dituzte, eta emakumeek bost. Maspe kalean

kokatuko dute helmuga. Manuel Penas, David Solis, Ivan Fernandez, Isabel Macias, Jaqueline Martin edota Paula Gonzalez ibiliko dira, besteak beste, podiunerako borrokan. EAEko proba garrantzitsuenetakoa da lurreta-

250 korrikalari espero dituzte domekako lasterketarako

koa, eta estatu mailan ere ospe handikoa da.

Ez da afrikarrik egongo izarren artean. Casalek azaldu duenez, Azkoitia-Azpeitia maratoi-erdia zapatuan izateak eragina edukiko du. Bestalde, iaz baino %35 aurrekontu txikiagoa izango dute aurten. Batez ere, babesle eta publizitatek dator galera. Udalak %10 murriztu du diru-laguntza. Krisi sasoiaren beharrez "ulergarria" dela dio Casalek, eta udalaren babesa eskertu du. ■ M.Onaindia.

Igoera postuan geratzeko Elorriok puntu bat behar du errugbian

Asteburu honetan amaituko du Elorrio Rugby Taldeak igoera fasea. Lehenengo hiru sailkatuak mailaz igotzeko azken faserako sailkatuko dira eta une honetan elorriarrak dira hirugarren Errioxari lau puntuko aldea aterata. Ondorioz, Irun bigarren sailkatuaren kontra, gutxienez puntu bat lortzen ahaleginduko dira asteburuan.

Azken fasea jokatu eta irabaziko balute ere, beharbada mailaz ez igotzea erabakiko du Elorriok. Goragoko mailan aritzeko hainbat baldintza bete behar dira eta horiei aurre egiteak merezi dien edo ez pentsatu behar dute oraindino.

Gertatzen dena gertatzen dela, elorriarren denboraldia gogoratzeko izango da: "Taldea moduan funtzionatu du eta konpromiso handia egon da denon aldetik", azpimarratu du Urdin Ugarte entrenatzaileak.

Bestalde, aste honetan errugbi taldeak 500 jarraitzaile lortu ditu sare sozialetan, euren orrialde publikoan. ■ J.D.

Liga irabazi ostean, Elorriok Bizkaiko txapelketa gura du

Gaztetxoen taldeak apirilean ekingo dio Bizkaiko finalera heltzeko azken faseari

Elorrioko hiru ikastetxeren artean antolatutako Elorrio futbol taldea ligako txapelketa gura du eskola kirolean, B2 multzoan. Horregaz, Bizkaiko txapelketa jokatzeko aukera ere lortu dute, eta apirilaren 21ean ekingo diote finalera sailkatzeko azken fase erabakiorrari.

Denboraldi borobila osatu dute. Liga osoan lau puntuk bakarrik ihes egin diete: berdinketa eta porrot bana. Gainerako hamahiru neurketak irabazi egin dituzte. Multzoko bigarren talderik golegileena ere izan dira, 78 golegaz, 80 sartu dituen Derioren atzetik. ■ J.D.



Bi partidu kenduta, gainerako denak irabazi dituzte.

Jaitsiera faseko itzulikoa etxean izango du DRTk

Arkitekturaren kontrako kanporaketa galdu ostean, Durango Ilarduyak Hospitalet izango du kontrario apirilaren 14 eta 15eko asteburuan. Partidu honetan Ohorezko B mailako 15. eta 16. postuak erabakiko dira. Ondoren, beheragoko mailako talde baten kontra jokatu beharko dute jaitsiera faseko azken kanporaketa erabakiorra.

Oraindik ez dakite talde hori zein izango den, baina zozketa bidez erabakiko da eta bueltako partidua Arripausuetan jokatu dute. ■ J.D.

Liderra eta azkena aurrez aurre futbolean

Domekan derbia jokatu dute Berrizek eta lurretakok Maila gorenean. Ligako azken sailkatua eta liderra dira, hurrenez hurren.

Liga amaitzeko zortzi jardunaldiren faltan, mirari handirik ezean, Berrizek maila galduko du, hamabi puntura baitu salbazioa. Esperantzari eusteko beharrezko ditu hiru puntuak. Lurretako, aldiz, oso denboraldi ona osatzen ari da eta mailaz igotzeko aukera handiak ditu, Retuertogaz eta Loigaz batera. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

MAILA GORENA (gizonak)

Zaldia - Basurto

Zapatuan, 17:30ean, Solobarran.

Berriz - Iurretako

Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Peña Athletic

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

Iurretako - La Merced

Zapatuan, 15:30ean, Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

MAILA GORENA (gizonak)

Sasikoa - Meatzari

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

EUSKAL LIGA (gizonak)

Kurutzlaga Ikastola - Eskolaploak

Zapatuan, 18:15ean, Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Leioa Maia

Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

PILOTA

SAN PRUDENTZIO

TXAPELKETA

- Gallastegi-Rico

- Urkizu-Mendia

- Zelala-Larrañaga

- Mujika-Sedano

Barikua, 20:15, Traña-Matiena

- Goñi-Albizu

- Garalo-Pujana

- Atutxa-Maiza

- Hernandez-Altuna

Zapatua, 16:30, Traña-Matiena

- Ziarrusta-Angulozar

- Ortiz-Bikuña

- Elordi-Muñoz / Gorostiaga-Arandia

Domeka, 11:00, Traña-Matiena

AISIALDIA >

amalurra



Jasangarritasunaren banderagaz, ortuko lanari ekingo diote Elorrioko Institutuan

Iurretako Juan Orobiogoitiaren ondoren, Bandera Zuria izeneko ziurtagiria jasotzen duen bigarren ikastetxea da Durangaldean

Ziurtagiria jasotzek "poza" eman die, baina baita ortua martxan jartzeak ere

Sasoian sasoiko produktuak ekoiztearen arabera landuko dute ortuko lurra

Elorrioko Institutuak jasangarritasuna egiaztatzen duen Bandera Zuria jaso du, Eusko Jaurlaritzak emanda. Josu Etxaburu institutuko zuzendariak eman ditu azalpenak, Ana Otadui alkateak eta auditoria egin duen Ingurugelako Asun Fernandezek lagunduta. Etxaburuk esan du "behar kolektiboari" emandako saria dela ziurtagiria. Inauguratu duten ortua ere lan kolektiboaren saria izango dela adierazi du, eta eskerrak eman dizkio alkateari udalak proiektu horretan lagundu duelako.

Sentsibilizazioan eta ekintza solidarioan murgilduta dabilta irakasle eta ikasleak. Prentsurrekoa bera, Txoko Berdea deitu dutenean eman dute: informazioa trukatzeko gunea da institutuko hau. Anekdotak legez, Otadui kontatu du egun batean Patruila Berdea izeneko ikasle taldea udaletxera joan zela, erreka garbitzeko eskaera administratiboa egitera. "Harrituta eta pozik" geratu ei zen ikasleen inizatibagaz, eta aurreratu du maiatzean garatuko den Ekologiaren Astean barneratu daitekeen ekintza bat dela. "Elorrioko gazteak solidarioak eta ingurugiroagaz sentsibilizatuta daudela argi dago".

Ortua eta sukaldea

Udalak bultzatutako ortuaren inaugurazioa egin dute, era berean, institutuan. Etxaburuk dio lan hori planifikatu behar dutela, baina lurra lantzea sasoian sasoiko produktuak ekoiztearen arabera egingo dutela. Gainera, ikastetxeko sukaldaritza tailerlean erabiliko dituzte baratzeak ateratzen diren elikagaiak. Jantokiko soberakinen egindako konpostagaz ondoko dute lurra. Institutuko zuzendariaren esanetan, ziurtagiria jasotzek "poza" eman die, baina baita ortua martxan jartzeak ere.

Hamasei ikastetxe

Eskola Agenda 21aren baitako dinamikak dira hauek guztiak, ikasleak ingurugiroagaz sentsibilizatzea helburu dutenak. Durangaldean hamasei ikastetxe dabilta beharrean esparru honetan, eta Elorrioko Institutuagaz batera, Iurretako Juan Orobiogoitia institutuak ere jaso du Bandera Zuria.

Jasangarritasunaren ziurtagiria jasotzeko, auditoria pasa dute urtean zehar ikastetxean, eta Etxaburuk dio batez ere "auto-baluzioa" izan dela. Institutuak hazten jarraitzeko gogoia daukala gaineratu du.

Ekimen batzuk

Txoko berdea: institutuan ingurugiroagaz lotutako gune bat sortu dute. Bertan, informazioa trukatzeko dute helburu.

Patruila berdea: ikasle talde bat udaletxera joan zen, erreka garbitzeko eskaera administratiboa egitera.

Espezie-inbaditzaileak: San Agustin auzoan panpa-lezka izeneko espezie inbaditzaileari luma-mototsak ebaki zizkioten.

Eskola-baratza: Udalaren laguntzaz ortua zabaldu dute ikastetxean.

babeslea:



URKIOLA
PARKE
NATURALA



Jatetxe gida



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com


Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, Durangoko San Agustinen

LURRA ASTINDUZ

Gerra osteko Durangon kokaturiko istorioa da Karrikaren *Lurra astinduz*. "Beharbada, bonbardaketa egunak baino gogorragoak izan ziren ondorengoak". Hipotesi hori maitasun istorio batez landu du Karrika antzerki taldeak. San Agustinen, Zilar Astearen barruan eskainiko dute. Joan zen urrian estreinatuko zuten, Santa Ana plazan, Agurrik Gabeak ekimenagaz.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> **Martxoaren 30ean**, Gorakada taldearen *Printzea eta ahatea*, 18:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

>> **Martxoaren 30ean**, Karrika taldearen *Lurra astinduz*, 22:00etan, San Agustinen.

>> **Apirilaren 1ean**, *Lurra astinduz*, 19:00etan, San Agustinen.

BEHAKETA

DURANGO

>> **Martxoaren 31n**, Izarra elkartaren *astronomia behaketa*, 21:30ean, Ezkurdin. Eguraldi txarragaz, elkartearen Laubideta 6ko egoitzan batuko dira.

BERBALDIA

ELORRIO

>> **Martxoaren 30ean**, Jimi Jimenezen berbaldia: *Exhumando fosas, recuperando dignidades*, Elorriko bonbardaketaren 75. urteurrenko egitarauaren barruan, 19:00etan, Iturri kultur etxean.

ERAKUSKETA

DURANGO

>> **Martxoaren 24tik apirilaren 1era**, *Ahaztutako munduaren geografia*, liburutegian.

LEHIAKETA

ABADIÑO

>> **Apirilaren 20ra arte** aurkeztu daitezke lanak **San Trokazetako kartel lehiaketara**. Informazio gehiago, udalaren webgunean: www.abadiño.org.

BERRIZ

>> **Apirilaren 20 arte**, **San Pedro eta Santa Isabel** jaietarako kartel lehiaketan parte hartzeko, Berrizko liburutegian aurkeztu daitezke lanak.

IBILALDIA

DURANGO

>> **Martxoaren 31n**, Zilar Astearen barruko ibilaldi kulturala, 18:15ean, Kurutziagan hasita.

ELORRIO

>> **Martxoaren 31n**, **Elorriko bonbardaketaren 75. urteurren-**

neko egitarauaren barruan, Intxortara ibilaldia, 09:30ean, Elgetako plazatik abiatuta.

INSTALAZIOA

DURANGO

>> **Martxoaren 20tik 31ra**, **Bonbardaketaren 75. urteurreneko** ekitaldien barruan, Txelu Angoitiaren instalazio artistikoa, Santa Susana elizan. Aste barruan, 18:30etatik 20:30era. Asteburuan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:30etatik 20:30etara.

KONTALARIA

BERRIZ

>> **Martxoaren 31n Txomin Magdalenaren Ametsen tailerra** saioa, 12:15ean, Kultur Etxean.

IURRETA

>> **Martxoaren 30ean**, Haur eta Gazte liburuaren eguna: **Oihana Etxegibelen Sirenatxo**, Bibliotekan. 17:30ean (3-4 urte artekoentzat); 18:00etan (5 urtetik gorakoentzat).

>> **Martxoaren 30ean Beatriz Egizabal**, 20:00etan, Bibliotekan.

MUSIKA

ABADIÑO

>> **Martxoaren 30ean**, **Kraussk eta Norman**, 22:30ean, Gaztetxean.

DURANGO

>> **Martxoaren 30ean**, **Todo o nada**, 22:30ean, Intxaurre tabernan.

ELORRIO

>> **Martxoaren 31n**, **Dj. Makala eta Happy Sound**, 23:00etan, Parra tabernan.

PAILAZOAK

ELORRIO

>> **Martxoaren 30ean**, **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**, 17:30ean eta 19:30ean, Arriolan.

UDALEKUAK

DURANGO

>> **Berbaro elkarteak** antolatuta, Udako Kanpaldietarako izena emateko aukera zabaldu dute. Informazio gehiago, elkartearen Pinondo plazako bulegoan, gazteak@berbaro.com-en edo 94-6202540 telefono zenbakian.

ZINEMA

BERRIZ

>> **Martxoaren 30ean**, **Los descendientes** filmaren emanaldia, 22:00etan, Kultur Etxean.

>> **Apirilaren 1ean**, **Los descendientes** filmaren emanaldia, 19:00etan, Kultur Etxean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Todos los dias de mi vida

Zuzendaria: Michael Sucsy
barikua 30: 22:00
zapateria 31: 22:30
domeka 1: 17:00/19:30
astelehena 2: 22:00
martitzena 3: 20:00

Umeen zinema

Lorax 3D

Zuzendaria: Chris Renaud
barikua 30: 19:00
zapateria 31: 17:00 / 19:30
domeka 1: 16:00 / 18:15
astelehena 2: 19:00
martitzena 3: 18:00

ELORRIO

Arriola

Shame

Zuzendaria: Steve Mc Queen
zapateria 31: 22:30
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00

Umeen zinema

Malutatxo

Zuzendaria: Andres G. Schaefer
domeka 1: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

The Artist

Zuzendaria: Michel Hazanavicius
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00

Umeentzako zinema

Viaje al centro de la tierra 2: la isla misteriosa

Zuzendaria: Brad Peyton
astelehena 2: 17:30

apirileko agenda

Apirilak 1,5,6,7,8,9,14,15 • Iurreta Txirindulari Elkarte
09:00 Hainbat ibilbide (90-121 km)

Apirilak 1 • Bidezabal Atletismo Taldea
10:00 XXXII. Iurretako Hiri Froga

Apirilak 1,11,15 • Emakumeen Bira Ziklismo K.E.
1ean, Zornotzako Udaberri Saria (mutil kadeteekin)
11n, Trapagako belodromoan pista eskal torneo
15ean, Zamudion, emakumeen Txorierni Saria (euskal torneo)

Apirilak 2,20 • Herri Biblioteka
2an, Nazioarteko haur eta gazte liburuaren eguna
20an, Bularretik mintzora. 17:00 3,4,5 urte / 18:00 LHko 1. eta 2. mailak

Apirilak 14 • Antzinako eztegia
17:00 San Marko txokoan batzarra, Oromiño

Apirilak 17,19 • Kultura Saila
18:30 Guraso eta hezitzaileentzako hitzaldiak, Ibarretxe kultur etxean.
Hizlaria: Juan Carlos Alonso (psikologoa)

Apirilak 18 • Eموixu Txonpolo elkartearen
16:00-21:00 Odol emotea

OHARRA

Ibarretxe kultur etxeako Aste Santuko ordutegia
Apirilaren 2tik 13ra goizez irekiko da 08:30etik 13:30era

KZgunea: Internet, oinarritzko ikastaroa
Apirilaren 12, 13, 18, 25 eta maiatzak 2, 9, 16, 23. Ordutegia: 10:00-12:00.
Izena-emateko epea: Apirilaren 2tik 4ra..

Aste Santuko Tailerrak
Apirilaren 10etik 13ra goizetan, Goiuria kultur gunean, 10 euro.
Izen-ematea: Ibarretxe kultur etxean.

IURRETAKO UDALA



Martxoaren 30ean, Abadiñoko gaztetxean

KRAUSSK ETA NORMAN

Metal doinuak eskainiko ditu Mutrikuko Kraussk taldeak, Abadiñoko Gaztetxean, gaur gauean. Electric Dolls eta Skandalu Publikun taldeetan aritutako musikariek osatzen dute Norman, eta maketa kaleratu berri du Eibar eta Ondarroako musikarier Kraussk boskoteak.

DENBORAPASAK

		Zelata eginez		Musika nota		Araiakoa
		Ikusteko organoa		Goizeko otordu		
		Lotan		Röntgen		
		Berdinu		Gaixo		
Portuko langile		Igaroa				
Zapatagin		*Irudiko fruitua				
Mirakulua						
Jakingo banu					Kontso-nantea	
					Marokoko hiria	
Gorotza				Ez eme		
Anaia				Erbioa		
			Nafarroako ibaia			
			Arraza			
Nafarroako hiria						Zintzoa
Burmuin				Musika nota		
				H2O		
Rutenioa		Merezi du				
Vianakoa		Nitrogenoa				

ZORION AGURRAK > zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Gaur, martxoak 30, **Peruk** 3 urte betetzen ditu. Ondo pasatu eta musu potolo-potolo bat! Zorionak zaparro!



Zorionak **Ander txo** etxeko guztien partez! Domekan, martxoak 1, lau urte beteko dozuz eta gizontxo bat eginda zagoz!



Ipar Arriagak urtetxo bat beteko du apirilaren 6an. Zorionak aitatxo, amaxo eta familia osoaren partez. Patxo potolo bat, txikitxu!



Zorionak **Iker!** Gaur, martxoaren 30, urteak betetzen ditu. Zorionak eta musu handi handi bat etxeko guztien partez!

1

9		3	6		
	2				
		4	8		9
4	5	7			
7		8		3	5
	9			2	8
		6		7	2
		4	9		
6	5			9	

2

				8	3
1		4	8		
3		1			5
7				8	
	6		7	1	
	1	3		2	6
			6		
8	1		2		3
9	2				8



Zorionak **Alaitz** zutaz hainbeste gogoratzen garen guztien partez! Gugandik aparte egon arren zure ahotsaren berotasunaz bertan bazina bezala sentitzen zaitugu. Musu pilo bat!



Zorionak **Arantza** eta **Martineri**, 15 egunean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenen jaso dezakezue, Iurretako Bixente Kapanaga 9an.

BOTIKAK >

Barikua, 30
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
Zapatua, 31
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
09:00-13:30
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Domeka, 1
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
Astelehena, 2
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Martitzena, 3
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
09:00-22:00
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Eguaztena, 4
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
Eguena, 5
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRIAOK
Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....670 409 330
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00

Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALZAIINGOA

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

EGURALDIA > ☁ ☀ ☁ ☀ ☁ ☀

7
21° BARIKUA ☀

7
19° ZAPATUA ☁

4
17° DOMEKA ☁

2
17° ASTELEHENA ☀

4
16° MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga..... 0,80 euro
Porruak..... 1,80 euro/tx
Kalabaza..... 2,20 euro/kg
Azenaorioak..... 1,50 euro/tx
Azalgak..... 2 euro/kg
Bruselazak..... 3 euro/kg
Espinakak..... 1,50 euro/tx
Indabak..... 15 euro/kg
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg
Espeltzako ogia.....3,60 euro

SOLUZIOAK

5	8	5	7	6	9	2	1
7	6	8	2	7	4	6	8
4	1	7	3	1	7	4	6
2	2	6	9	4	4	5	7
2	2	6	8	8	8	8	8
5	5	3	3	1	2	5	1
4	7	8	9	1	2	5	5
1	7	2	6	9	1	5	5
6	4	1	2	6	9	1	5
6	4	1	2	6	9	1	5
1	1	2	6	9	1	5	5
8	2	7	3	1	6	5	4
8	2	7	3	1	6	5	4

A	R	R	A	N	A	V	V
N	I	U	D	•	U	R	•
O	D	•	N	U	R	V	G
•	V	R	E	T	U	T	•
V	G	E	•	V	B	E	N
R	V	•	V	K	V	K	•
R	•	I	K	E	N	V	B
V	A	R	V	R	I	M	•
I	R	V	T	V	P	V	Z
V	A	E	S	A	•	Z	•
R	•	O	L	•			
V	A	I	G	B	E		
•	M	•	Z	•			



"Bake eta lasaitasun ikaragarria da Urkiola"

Urkiolan jaio, bizi eta lan egiten du Eli Bizkarralegorrak, eta gaur egun lehenagokoa baino bizimodu azkarragoa daroagula dio

Aste Santuagaz batera, Burdi-kurutze ostatuan bisitariak jasotzea itxaroten du Eli Bizkarralegorrak. Beharrea, eguna batera eta bestera pasatzen duen horietakoa da. Gauzak mimos egitea gustatzen zaio. Urkiolan jaio, Elorriora ezkondu eta atzera Abadiño eta Otxandio arteko mendatera bueltatutakoa da.

Oraintsu eraberritu duzue Burdi-kurutze ostaturia.

Zazpi hilabete dira obra egin genuenetik. Antzina, burdien garelaku zen etxe hau, zaldiek atsedent hartzeko. Gero korta legez ezagutu nuen; taberna ere izan zen, eta azkenean aitek erosi zuen. Bizkarratjetxea hotela izan zen, eta eraberritzea pentsatu genuen, baina azkenean aitek erositako etxea zabaltzea erabaki genuen. Hiru gela dauzkagu. Lan handia egin dugu eraberritzen, bezeroa etxean bezala sentitzea gura genuen-eta. Azken batean, hori da denok non-baitera goazenean sentitu gura duguna.

Internetegaz, egun batetik bestera egin daiteke erreserba...

Batzuetan horrela izaten da. Baina arriskutsua ere bada, beteta egon daitekeelako. Bartzelonako, Madrilgo eta Frantziako jende gehiagok ezagutzen gaitu, eta hori atzeritarrek interneten aukera dutenaren seinale da. Webgunea daukagu, eta hortik ezagutarazteko ahaleginetan gabiltza; ingelez eta alemanieraz ere ematen dugu informazioa bertan. Normalean, egun pare baterako hartzen dute lekua; oso gutxi dira astebeterako datozenak. Erdigune legez eta Bilbora edo Gasteizera mugitzeko helburuz hartzen du askok hemen lekua. Hemengo bezeroen kasuan, opari legez asko erabiltzen da gau bateko estantzia, afariagaz eta gosariagaz.

Ostatuaz gainera, bestelatan ibiltzen zarete.

Hemen eguna ez da luzea izaten niretzat. Jatetxea 09:30ean irekitzen dugu, eta itxi 21:00ak bueltan; batzuetan 23:00etan, jendea-

ren arabera. Goizetan sukaldean ibiltzen naiz, eta ahizpa barran eta mahaietan. Asteburuetan beste laguntzaile bat etortzen da, eta gizona eta semeagaz guztia kubritzen dugu. Semeak gazta egiten du, gainera. Orain, menu eta plater konbinatuz aparte, etxerako zerbitzua ere ematen hasi gara, katering estiloan. Hori bai, gure jatekoa berezia da: txerri hankak bizkaitar eran, tripakiak, muturrak, lehenagoko untxi-menestra eta almandrongilak... Guztia nire amama eta amak egiten zuten erara, eta presio-eltze barik. Ogia, opilak eta bizkotxoak ere geuk egiten ditugu. Bizkotxoak arrakasta itzela dauka.

Zer gomendio ematen diezu zure gonbidatuei?

Lehenengo eta behin zenbat ibili gura duten galdetzen diet. Gutxi ibili gura dutela?, bada gurutzetara paseotxo bat egin dezakete eta lasai egon. Beste pixka bat ibili gura dutela?, bada Saibigainera igotzea proposatzen diet. Apur bat gehiagorako, Larrano. Arriskua gura dutenak Deabruaren zubira joaten dira, baina txikitan joan nintzen eta ez zait gustatzen; momentu txarra pasatu nuen. Teilamendi, akaso ez da mendi politena, baina han goitik guztia zoragarri ikusten duzu. Niri hori da gehien gustatzen zaidana.

Egoera ekonomikoa ez da askoren lagun gaur egun...

Azken hilabeteetan asko igarri da. Arrasateko autobidearen irekierak ere jende asko kendu digu. Gauzak aldatzen dabiltza; lehenago baino bizimodu azkarragoa daroagu. Lehen ere bizimodua azkarra zen, baina lasaiago bizi ginen.

Uste dut ez dugula lehen bezain beste gozatzen. Bizimodu hau gogorra da. Beherakada momentuetan, bisita-liburuan bezeroek idatzitakoa irakurtzen dut, eta pila bat animatzen nau.

Urkiola mendatea kontuz ibiltzekoa zen atzerago.

Konponketa hoberako izan zen. Bihurguneak oso zabalak dira, eta ederto dago. Ez diotinoiz beldurrik eduki, baina karneta 46 urte gaz atera nuen. Atera ezean, hemen geratzen zara geldirik! Normalean oso urdurian naiz, baina errepidean lasai ibiltzen naiz, beste pertsona bat naiz.

Betidanik hemengoa izanik, zer da zuretzako Urkiola?

Bake eta lasaitasun ikaragarria. Lo egitera-eta etortzen direnek ere gauza bera esaten dute. Asteburuetan apur bat aldatzen da, baina arratsalderako berriro lasaitzen da giroa. Izan ere, orain kontrol ugari dago, eta ezin daiteke edan. Lehen igoal 23:00ak arte egoten zen jendea, baina egun ez dago trago luzerik. Ezkontza bat edo antzeko ospakizunen bat bada bai, baina autobusean jaisteko.

Eli Bizkarralegorra

Bizkarratjetxea eta Burdi-kurutze ostaturia daroaz, Urkiolan



Babes lar

Joan den bariku eguerdian, institututik irteterakoan, eskola astea amaitzek dakarren euforiaz beteta, zera ikusi nuen espaloian: hamalau-hamabost urteko mutil kankailu bat, kirola egiteko jantzita, praka motzak, kamiseta manga motza, motxila lepoan eta tente, zut, geldik.

Hura zen mutila hura, sei oin luze, eukalipetu arbolaren antzera zuzen, zumerik fine-na bezain malgu eta udaberri euritsuko urkia baino zuria-go.

Bere aurrean 35-40 urte inguruko andra bat, praka luze eta jertse baltzez jantzita, belaniko jarri eta mutil kankailuari deportibaklotzen. Hau da hau, ederrak ikusteko jaio gara.

Babestuegiak doguz gaurko gazteak, dena eginda ematen deutsegu. Zergatik babesten doguz hainbeste?

Lasaitasunean, maitasunean eta giro orekatuan; gazteei hazten eta beren buruaren jabe izaten laguntzea izan beharko leuke helduen bete-beharra. Baina, zeozek, zozzer indartsuk kale egiten deusku.

Jaioterakoan emaginak zilbor hestea eten eban lasaitasun eta ziurtasun berarekin, eten beharra dago gogoaren zilbor hestea; bestela jai daukagu. Artzeren olerkiak dinon moduan: *Ohar zaitetz/benetan maite nauzun ama/izan nahi baduzu/eta nik zu maitatzea,/ni naizena/nik izatea nahi dutana izatera,/ez utzi bakarrik,/bultza behar nauzula./hau baita bide bakarra/biok alkar sanoki maitatzeko,/biok alkar osoki eta betikoz maitatzeko:/zuk zure nortasunaz,/nik nereaz.*

Konturatu zarie aita ez dala inundi agertzen?

Babestuegiak doguz gaurko gazteak, dena eginda ematen deutsegu

DISEINU GRAFIKOA ETA WEB DISEINUA

LOGOTIPOAK ROLLUP

KATALOGOAK EGUTEGIAK FLYER

STAND GONBIDAPENAK KAMISETAK KARTELAK

ALDIZKARIAK ONLINE DENDAK INFORMAZIO BLOGAK

ENPRESA WEBGUNEAK AZOKA ERAKUSKETEN DISEINUA

(AZI)
KOMUNIKAZIOA

DEITU
KONPROMISO BARIK!!!